



1. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren ezaugarri nagusia da...
 - a. Familiaren eta Haur-eskolaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela
 - b. Haur-eskola familiaren esanetara egon behar dela
 - c. Familiarekin informazio trukaketak ikasturte hasieran eta amaieran soilik burutuko direla
2. Adin hauetan haurrak helduekin dituen harremanei dagokienez...
 - a. Orokorrean heldu guztiekin lotura afektibo positiboak eraikitzen ditu
 - b. Oraindik mendekotasun handikoak dira, heldurik ezean ezinezkoa bailuke bere oinarrizko beharrak asetzea
 - c. Pertsona kopuru murriztarekin harremanak izateko gai da
3. Haur-eskolarekin haurraren lehenengo harremana horrelakoa izan behar da...
 - a. Laburra, familiarekiko banatzeko unearen larritasuna ez luzatzeko
 - b. Atsegina, egituratzailea eta haur bakoitzari egokituriko erantzuna emateko gaitasunarekin
 - c. Aurreko biak zuzenak dira
4. Noiz hasten da haurra pertsona jakin batzuei zeinuak igortzen?
 - a. Jaiotzatik
 - b. Atxikimendua eratu baino lehenago hasten da
 - c. Atxikimendua eratzen denean soilik
5. Adin hauetako haurrengan, komunikazio-egoeretan...
 - a. Hitzezkoa ez den komunikazioak garrantzi handia du
 - b. Hitzezko komunikazioak garrantzi handia du
 - c. Komunikazio-egoeraren ezaugarriek garrantzi handia dute
6. Adin honetan haurrak bere burua eta errealitatea ezagutzeko...
 - a. Tradiziozko ipuinak izango dira baliabide nagusiak
 - b. Beste haurrekin erlazionatzen hastea ezinbestekoa da
 - c. Manipulazioa, jolasa eta esperimendua izango dira estrategia nagusiak
7. Hezitzaileak zainduko du...
 - a. Objektuen esplorazioa zaintzen duten ekintza eta testuinguruak sustatzea
 - b. Ikasgelako arauen betetze maila
 - c. Ikasgelako ordena mantentzea
8. Familientzat garrantzi handikoa da...
 - a. Haur-eskola, baliabide aldetik, ondo hornitua egotea
 - b. Haur-eskolan konfiantza izatea, beren seme-alabak onartuak, heziak eta baloratuak izango direla sentitzea
 - c. Haur-eskolaren higiena egokia izatea
9. Hezitzaileari dagokionez, ezinbestekoa izango da...
 - a. Ahotsaren tonua kontrolatzen jakitea
 - b. Haur-taldea ondo ezagutzea
 - c. Taldearekin komunikazioa bideratzea zein ume bakoitza entzuten jakitea
10. Haur-eskolak...
 - a. Haur-taldeetan izaten den aniztasuna errespetatzen du, eta gainera, aberastasun-iturri bezala biziko du
 - b. Haur-taldeetan homogeneotasunak dituen abantailei etekina aterako die
 - c. Aniztasuna bultzatuko du, ematen dela bermatzeko

11. Haur-eskolan haurrak bere buruari dagozkion imajinak eta bere aukerak sortzen ditu garapenean laguntzeko ...
 - a. Ahozko komunikaziorako gaitasuna
 - b. Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
 - c. Autonomia eta ekimen pertsonalari loturiko gaitasuna
12. Haur-eskolan haurrak kolaboratzen duenean, besteekin harremanak dituenen eta elkar bizitzen direnean gehien bat hau garatzen du ...
 - a. Kultura zientifikorako, teknologikorako eta osasunerako gaitasuna
 - b. Gizarte- eta herritar-gaitasuna
 - c. Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
13. Haur-eskolan haurrak bere inguruko pertsonekin elkar eragiten dutenean gehien bat hau garatzen da ...
 - a. Komunikazio linguistikorako gaitasuna
 - b. Gizarte- eta herritar-gaitasuna
 - c. Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala
14. "Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala" esperientzia-eremuak hau barneratzen du...
 - a. Komunikaziorako eta adierazpenerako tresnak garatzea
 - b. Haurrek beren buruari buruz arian-arian garatzen duten ezaguera
 - c. Ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguru desberdinen ezaguera
15. "Inguruaren ezaguera" esperientzia eremuak zera barneratzen du...
 - a. Pertsonaren nortasuna finkatzea
 - b. Mintzaera desberdinen garapena
 - c. Errealitatearen irudikapenaren konkretu bat lantzea
16. "Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena" esperientzia-eremuak zera barneratzen du...
 - a. Ingurunearen parte izatearen sentimenduaren garapena
 - b. Norbanakoaren eta ingurunearen arteko harremanak sortzea mintzaera desberdinen bitartez
 - c. Haurrek beren buruari buruz arian-arian lortzen duten ezaguera
17. "Beraien gorputza, ekintza eta adierazpen funtzio batzuk ezagutu eta adierazi bere aukerak eta mugak ezagutzeko" helburua zein esperientzia-eremuri dagokio?
 - a. Ingurunearen ezaguera
 - b. Mintzaerak: ingurunea eta adierazpena
 - c. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala
18. "Portaera pertsonala eta bizikidetzaren erregulatzeko ahozko hizkuntza arian-arian erabili eta baloratzea" helburua zein esperientzia-eremuri dagokio?
 - a. Ingurunearen ezaguera
 - b. Mintzaerak: ingurunea eta adierazpena
 - c. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala
19. "Gizarteko portaeraren oinarrizko ereduak arian-arian barneratu eta bere portaera horiei egokitu, besteekiko harremanak gero eta era orekatu eta egokiagoak izan daitezen" helburua zein esperientzia-eremuri dagokio?
 - a. Ingurunearen ezaguera
 - b. Mintzaerak: ingurunea eta adierazpena
 - c. Ingurune fisiko, natural eta globalaren ezaguera
20. Maitasunaren beharra.
 - a. Oinarrizko beharren (elikadura, babesa...) sekundarioa da



- b. Oinarrizkoa da eta soilik familia inguruan betetzen da
 - c. Jatearen eta babesaren beharra bezain oinarrizkoa da
21. Zeintzuk dira XX. mendeko psikologia-korronterik garrantzitsuenak?
- a. Psikoanalisi eta Konduktismoa
 - b. Psikoanalisi Kognitiboa eta Etologia
 - c. Aurreko guzti-guztiak, baina Hizkuntzaren Psikologia ahaztu gabe, besteak beste
22. Zein da zuzena?
- a. Psikoanalisi: Freud. Konduktismoa: Skinner. Psikologia Kognitiboa: Paulov
 - b. Psikologia Kognitiboa: Freud. Etologia: Darwin, Lorenz eta Bowlby
 - c. Psikologia Kognitiboa: Piaget. Etologia: Darwin, Lorenz eta Bowlby
23. Zein da zuzena?
- a. Psikoanalisi: Piaget. Konduktismoa: Skinner
 - b. Psikoanalisi: Freud. Konduktismoa: Paulov
 - c. Ez bata eta ez bestea
24. Psikoanalisiaren ikuspegitik, zertan oinarritzen da umearen eta amaren arteko lotura?
- a. Elikaduran
 - b. Helduaren sentimenduan
 - c. Amaren maitasunean
25. Ikuspegi konduktistaren arabera...
- a. Haurrak gaitasun ugari ditu jaiotzetik
 - b. Haurrak gaitasun gutxi ditu jaiotzetik
 - c. Ez du gaitasunik jaiotzen denean, eta poliki-poliki dena ikasiko du
26. Ikuspegi konduktistaren arabera, zeintzuk dira haurren jokabideetan eragiteko baliabideak?
- a. Komunikazioa eta harremana
 - b. Errepikapena eta errefortzu positibo zein negatiboak
 - c. Hezkuntza-komunitatea
27. Psikologia kognitiboaren ikuspegitik, nola jaiotzen da haurra?
- a. Berezko zenbait jokabiderekkin
 - b. Inolako gaitasunik gabe
 - c. Ez bata eta ez bestea
28. Psikologia kognitiboaren ikuspegitik, nagusiki nola garatzen da haurra?
- a. Errepikapenaren bidez
 - b. Aurrezagutzen eta informazio berriaren arteko loturen bitartez
 - c. Memoria bidez
29. Etologiaren ikuspegitik, nola jaiotzen da haurra?
- a. Berezko zenbait jokabiderekkin
 - b. Inolako gaitasunik gabe
 - c. Ez bata eta ez bestea
30. Zeintzuk dira pertsonaren berezko jokabideak?
- a. Atxikimendu-jokabidea eta kideen arteko jokabidea
 - b. Esplorazio edo ikerketa jokabidea, beldurra eta guraso jokabidea
 - c. Aurreko guztiak



31. Chomsky-ren arabera, nola bereganatzen du haurrak gramatika unibertsala edo egitura linguistiko sakona?
 - a. Umeek denboraren poderioz ikasten dute
 - b. Gurasoekin elkarrekintzan ikasten dute
 - c. Berezkoa dutenez, ez dute ikasi behar
32. Zeintzuk dira ikuspegi konstruktiboaren oinarriak?
 - a. Pertsonak ez du ezagutza eraikitzeko beharrik
 - b. Pertsonak alde aurretiko ezagutzen gainean eraikitzen du ezagutza
 - c. Pertsonak memoriaren bitartez eraikitzen du ezagutza
33. Zein da ikuspegi konstruktiboari Vigotsky-k egindako ekarpena?
 - a. Haurraren izaera soziala aldarrikatu zuen
 - b. Haurrak ezagutza besteekin hartu-emanetan eraikitzen duela aitortu zuen
 - c. Aurreko biak
34. Ikuspegi konstruktiboan oinarrituz gero, zer bultzatuko genuke gelan?
 - a. Haurraren partaidetza eta motibazioa
 - b. Haurraren sormena, aurrezagutzak kontuan izanik
 - c. Aurreko guztiak
35. Ikuspegi konstruktiboa kontuan izanik, zer bermatu behar dugu gelan?
 - a. Haurra bere interesetatik abiatzea, bere motibazioa ziurtatzeko
 - b. Isiltasuna, arreta ziurtatu ahal izateko
 - c. Aurreko biak
36. Haur-eskolako zein une da hezteko aproposa?
 - a. Haurra esploratzen hasten den unea, bereziki
 - b. Une guzti-guztiak dira heziketarako egokiak
 - c. Jolas garaiak eta hezitzaileak gidaturikoak, batez ere
37. Hezitzaile batek fitxa batzuk erakusten dizkie hurrei. Fitxa horietan Europako herrialdeak ageri dira. 20 segundotan, fitxa guztiak erakutsi dizkie, herrialdeen izenak aipatuz. Zer deritsozu?
 - a. Metodo egokia da, txiki-txikitatik umeei herrialdeen izenak ikasteko
 - b. Metodoa oso ona da, baina denbora gehiago eskaini beharko litzaioke
 - c. Ez bata eta ez bestea
38. Hiru hauetatik aukeratu heziketaren ikuspuntutik egokiena:
 - a. Hezitzaileak hurrei ipuina kontatzea
 - b. Haurrak bere kabuz danborra jotzea
 - c. Hurrek irudi bat margotzea
39. Aurreikusia zenuen ipuina kontatzea, baina hasi aurretik umeak gustura ikusi dituzu materialekin jolasten. Zer egingo zenuke?
 - a. Ipuina kontatzen hasi
 - b. Jolasten utzi
 - c. Abesten hasi
40. Haur Hezkuntza derrigorrezkoa da gure arau-esparruan, ala borondatezkoa?
 - a. Haur Hezkuntza derrigorrezkoa da
 - b. Haur Hezkuntzaren Bigarren Zikloa (3/6) baino ez da derrigorrezkoa
 - c. Haur Hezkuntza borondatezkoa da



41. Haur Hezkuntzako curriculumak diobenaren arabera, Haur Hezkuntza borondatezkoa da, eta sei ikasturtek osatzen dute, honela banatuta:
 - a. Bi ziklotan: lehenengoa zero urtetik bi urtera, eta bigarrena bi urtetik sei urtera
 - b. Hiru ziklotan, bakoitzak bi urteko iraupena duela
 - c. Bi ziklotan: lehenengoa zero urtetik hiru urtera, eta bigarrena hiru urtetik sei urtera
42. Haur Hezkuntzaren curriculumaren arabera, zein da haur batek Haur-eskolan egunero igaro behar duen denbora?
 - a. Komenigarria litzateke sei ordu baino gehiago ez ematea
 - b. Oro har, haurrek ezin izango dute zortzi ordu baino gehiago igaro
 - c. Haur batek bere gurasoek lanean ematen duten denbora horixe igaro ahal izango du Haur-eskolan, eta horri ordubete gehitu behar zaio, joan-etorrietarako
43. Seme-alabak dituzten Familiei laguntzeko Erakundeen arteko II. Planak (2006-2010) familiei laguntzeko zerbitzu-sistema bat sortzea proposatzen du, eta zehazki:
 - a. Haur Hezkuntzaren bigarren ereduaren toki-hornidura hobetzea
 - b. Bi urte duten haurrei zuzendutako toki-estaldura osatzea
 - c. Bi urte baino gutxiagoko haur-biztanleriaren estaldura-tasa handiagotzea
44. Zero urtetik aurrera, haurren eskolatzearen ezarpen progresiboan, zeri emango zaio lehentasuna?
 - a. Ekoizpen eta lan guneetatik hurbilen dauden guneei
 - b. Maila sozio-ekonomiko baxueneko guneei edo, oro har, hezkuntza edo hizkuntza behar bereziak dituen ikasleriari
 - c. Maila sozio-ekonomiko baxueneko guneei
45. Nola lor daiteke gaitasunak garatzea eta gaitasunez jabetzea Haur-eskolan?
 - a. Etapa horretako curriculum ofizialean agintzen diren helburuak kontutan hartuz, eta curriculumari jarraituz, praktikan jartzeko inolako aldaketarik edo egokitzapenik egin gabe
 - b. Curriculum ofiziala orientagarri moduan bakarrik hartuz, egunero egiten ditugun ekintzak garapen hori bermatzeko nahikoak baitira
 - c. Curriculum ofiziala abiapuntutzat hartuz, eta haurren beharrei egokitzeko hainbat jarduera programatuz eta eginez
46. Haur Hezkuntzaren curriculum ofizialari dagokionez, nolakoa izan behar du hezitzaileen jokabideak?
 - a. Etaparen curriculumaren errespetatu behar dute
 - b. Esku-hartzeak planifikatu behar dituzte, banakako eta taldeko hausnarketa kontutan harturik
 - c. Etapa-curriculumaren helburuen lorpena ebaluatu behar dute
47. Haur-eskolan *komunikazioa* eta *irudikapena* lantzeko, ondorengo hauetatik zein estrategia erabil dezakegu?
 - a. Haurrei hainbat material eta objektu eman, horiekin esperimendatzeko eta jakin-mina asetzeko
 - b. Gorputzaren higienarako zenbait ohitura irakatsi, material eta toki egokiak erabiliz
 - c. Landare baten hazkundera zaindu eta zuzenean behatu, laguntzarekin edo laguntzarik gabe

48. Hurrek Haur-eskola kokatzen den herriko jaietan parte-har dezaten bultzatzea estrategia hezitzailea izan daiteke. Zein eremutako gaitasunak landuko genituzke horrela?
- Norbere nortasuna eta autonomia
 - Ingurune fisiko eta soziala
 - Komunikazioa eta irudikapena
49. Zeintzuk dira haur txikien ikaskuntza-iturri nagusiak?
- Batez ere, beraien hezitzaileek bai etxean bai eskolan esaten dietena ikasten dute
 - Batez ere, ikusten dutena ikasten dute
 - Ikusi, ukitu, entzun eta bizitzen dutena ikasten dute
50. Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur talde bat homogenea ala heterogeneoa da?
- Nagusiki homogenea, gutxi baitira eta adinez oso antzekoak baitira
 - Heterogeneoa, haur bakoitzak bere ezaugarriak eta garapen erritmoa baititu
 - Zertxobait heterogeneoa, beti baitago haur desberdinen bat
51. Haur-oihalak aldatzerakoan, haurra eta hezitzailearen arteko interakzio hezitzailean, zeri jarri behar zaio arreta berezia?
- Giro-tenperaturari, garbitasunari, aldaketa-tokiaren egokitzapenari
 - Bien arteko harremanari: begirada, ahotsa, ahozko edo hitzik gabeko hartu-emanak
 - Haurra eta hezitzailearen arteko interakzioak ez du derrigorrez hezitzailea izan behar une horretan
52. Zein da ebaluazio estrategia aproposena Haur Hezkuntzaren lehen zikloan?
- Onena diagnostiko on bat egitea da, sistematikoa eta profesionala, tresna espezifiko eta balioztatuekin
 - Behaketa egitea zentroaren eguneroko bizitzan, eta beste hezitzaileekin iritziak trukatzeko
 - Ez du inolako zentzurik ebaluazioak arinegi egiteak, umeek erritmo desberdinak dituztelako eta oraindik oso txikiak direlako
53. Euskal Hezkuntza Sistemaren ikasle guztiei emandako hezkuntza-erantzunak inklusio printzipioan oinarrituta egon behar du. Zer esan nahi dugu horrekin?
- Ikasle guztiek, jaiotzen direnetik, eskubidea dute ikastetxeetako matrikula-zerrendetan onartuak izateko
 - Ikasle guztiak berdintasunean heziko dira, aniztasuna kontuan hartuta eta, inolako bazterkeriarik gabe
 - Hala behar duten ikasleei, hezkuntzarako baliabide osagarriak emango zaizkie
54. "Hezkuntza inklusiboa" printzipioa da Euskal Hezkuntza Sistemaren oinarrietako bat; , hau da:
- Beste hainbat printzipioekin batera, ikasle guztiak hezteko Hezkuntza Sistemaren esparrua osa dezake
 - Ikasle guztiak ikastetxeetan barneratu behar ditugu, herrialde urrunduetatik datozenak eskolaratzea eragotzi gabe
 - Hezkuntza Sistemak pertsonen, kulturen, maila ekonomikoen eta sozialen arteko desberdintasunen orekatzaile gisa jokatu behar du, eta arreta berezia jarri behar zaie ikasleen ezintasunen ondorioz sortutako desberdintasunei

55. Hezkuntza Sistemako ikasle guztien garapenak berdintasuna bultzatzen du eta gizarte-kohesio handiagoa lortzen laguntzen du. Garapen hori bermatuta dago gaur egun gure hezkuntza-sisteman:
- "Hezkuntza inklusiboaren" printzipioa aplikatuta
 - Eskubide- eta aukera- berdintasunaren garapena eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako berdintasuna sustatuta
 - Hezkuntza egokitzeko malgutasunaren bidez: bai jarreraren, interesen eta beharren aniztasunari egokitzeko malgutasuna, bai ikasleek zein gizarteak izaten dituzten aldaketei egokitzeko malgutasuna
56. Hezkuntza-inklusioren printzipioa bermatze aldera, hainbat betebeharrak dituzte hezkuntza-administrazioek. Horien artean, honakoak:
- Haur-eskola bakoitzean talde multiprofesional bat jartzea, haur bakoitzaren arreta bermatzeko eta irakasle zein hezitzaileei arretaren inguruan gomendioak emateko
 - Ohikoa ez den hezkuntza-arreta behar duten ikasleen hezkuntza-behar espezifikoak garaiz identifikatzeko prozedurak eta baliabideak zehaztea
 - Familiei laguntza ekonomikoak ematea, ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatzeko eta heziketa-gastuak ordaindu ahal izateko
57. Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen eskolaratzea normalizazio- eta inklusio-printzipioetan oinarrituko da:
- Batzuetan, hogeita bat urtera arte
 - Printzipio horiek ez dira kontuan hartu behar. Behar dituzten baliabideak eman behar zaizkie, eta ikasle horientzako ikastetxe berezietan eskolaratu behar dira
 - Ikasle horien eskolaratzea printzipio horien arabera egingo da beti
58. Ikaslearen arreta inklusiboa bermatzeko, Administrazioek.....
- Ikastetxeen baldintza fisikoak (eskola garraioa barne) eta baldintza teknologikoak egokitzeko programak sustatu behar dituzte, betiere ikastetxeko ikasleen beharrak kontuan hartuta
 - Programa horiek beti sustatuko dira, baldin eta ikastetxeek indarrean dagoen legediak ezarritako irisgarritasun-baldintzak betetzen badituzte
 - Programa horiek sustatuko dira, soilik baldin eta ikastetxean matrikulatutako ikasleek hala eskatzen badute
59. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuak ekintzen balioak, helburuak eta lehentasunak bilduko ditu, eta, oinarrizko balio direnez, bereizkeriarik ezaren eta hezkuntza inklusiboaren printzipioak errespetatu beharko ditu:
- Soilik Haur-eskoletan eta Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako eskoletan
 - Ikastetxe guztietan
 - Ikastetxe publikoetan
60. Hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoa duten ikasleei, behar horiek antzeman eta berehala emango zaie arreta integrala, eta ondorengo printzipioek zuzenduko dute arreta hori:
- Etengabeko ikasketa eta malgutasuna
 - Hezkuntza- eta lanbide-orientabidea
 - Normalizazioa eta inklusioa
61. Nola esaten diogu ezaugarri pertsonalei, generoari, jatorri sozialari, kulturari eta abarri jaramonik egin gabe ikasle guztiei kalitatezko eskaintza egiten dien eskola motari?
- Eskola muinbakar
 - Eskola selektibo

- c. Eskola inklusibo
62. Gizabanakoen arteko desberdintasunei dagokienez, eskola inklusiboaren arabera:
- Laguntza-klaseen bitartez, eskola-arrakasta lortuko da
 - Ikasle guztiak onartu behar dira, baldintzarik gabe
 - Ikasleen arteko desberdintasuna gizarte-sisteman konponduko da, familiei lagunduz
63. Inklusioa hezkuntza-inguruneetan dagoen aniztasunari erantzuteko esku-hartze pedagogikoaren printzipio teorikoa da eta integrazioaren sinonimoa:
- Egia
 - Gezurra
 - Integrazioa baino zabalagoa da
64. "Hezkuntza-inklusioa " printzipioa hemen jasoa dago:
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoarena
 - 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa
 - 6/1989 Legea, uztailaren 6koa; Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa
65. Inklusioak eskola-sistemako haur guztiak hartzen ditu kontuan, beraz, integrazioa baino zabalagoa da:
- Egia
 - Gezurra
 - Superdotatuen ikastetxeetan bakarrik da zabalagoa
66. Eskola inklusiboak ondorengoa proposatzen du hezkuntzaren kalitateari dagokionez:
- Inklusioa etengabeko hobekuntza-prozesuaren oinarri izatea, eta horrek etengabe hausnartu eta egokitu beharra dakar
 - Curriculum ez izatea zabala eta berezitua
 - Erakundeen arteko harremanak ez sustatzea, erabat formalak direnak izan ezik
67. Eskola inklusiboak gizarte-arloan ondorengoa lortzen laguntzen du:
- Gizarte lehiakorrak eta eraginkorrak garatzen
 - Etorkizuneko hiritarraren gizarte-harremanak hobetzen
 - Aukera berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua bultzatuko duten gizarte solidarioak garatzen
68. Eskola inklusiboa honakoa da:
- Eskolan zein maila pertsonalean aurrera egiteko behar dituzten hezkuntza-aukerak eta laguntza eskaintzen die ikasle guztiei
 - Etorkizuneko hiritarraren harreman sozialak hobetzea eskaintzen du
 - Zailtasunak dituzten ikasleak integartzeko laguntza eskaintzen du
69. Eskola Inklusiboaren helburuen artean dago:
- Ikasleari laguntza eta arreta eskaintzea, ikastetxean matrikulatzen denetik
 - Ikasle guztiek curriculumean parte har dezaten laguntzea, haien ezaugarri pertsonalen arabera
 - Ikasle aurreratuenei modu eraginkorrean erantzutea
70. Irakasleen lana hobetzea ahalbidetzen duten ondorengo baldintzen artean, adierazi zein den ez den oso lagungarria eskola inklusiboagoa lortze bidean.
- Gizarte-lana sustatzea (ikasleen elkarlana)
 - Irakaskuntza-ikaskuntza praktika eraginkorrak diseinatzea, ikasle guztiek parte hartzeko modukoak
 - Irakasleek programazio-unitateak banaka planifika ditzaten sustatzea



71. Eskola inklusiboa lortzeko gakoetako bat da:
- Ikasgeletako heterogeneotasuna hezkuntza-erantzuna anizteko aukera gisa ulertzea eta onartzea
 - Ikasle bakoitzaren gelako lana ikasteko funtsezko tresna metodologiko bihurtzea
 - Ikasleen heterogeneotasuna ikasleek eskola-arrakasta lortzeko gako dela onartzea
72. Eskola inklusiboak ikasleen aniztasuna aberastasun gisa ikusiko du,....
- Desberdintasunak ikasteko estiloen eremuan edo ikasleen motibazio zein interesetan agertzen direnean bakarrik
 - Desberdintasunak hezkuntza-behar berezien esparrukoak direnean bakarrik
 - Kasu guztietan
73. Zertaz ari gara haurraren garapen osoa edo integrala aipatzean?
- Garapena osatzen duten alderdi guztiei egiten zaie erreferentzia: afektiboari, kognitiboari, sozialari, motoreari...
 - Eskolako helburuak lortzean soilik erdiesten da garapen osoa
 - Ez bata eta ez bestea
74. Haurraren garapenari dagokionez, zer-nolako lotura dago bere osagaien (afektiboa, soziala, kognitiboa...) artean?
- Ez dago lotura handirik, bakoitza nahiko autonomoki garatzen delako
 - Lotura dago zenbait osagaien artean; adibidez, garapen sozialaren eta afektiboaren artean
 - Garapenaren osagai guztien artean lotura dago, eta ezin daiteke garapena zatikatu
75. Garapenaren alderdi afektiboa, soziala, kognitiboa eta motorea kontuan izanik, nola esku hartu beharko genuke gelan?
- Esperientzia globalizatzaileak planteatuz
 - Alderdi bakoitza lantzeko ariketa espezifikoak proposatuz
 - Alderdi kognitiboari garrantzia emanez, horixe baita garapenaren giltza
76. Nola sustatuko zenuke haurraren alderdi kognitiboa?
- Alderdi kognitiboa sustatzeko, lehendabizi haurraren ongizatea bermatu behar da
 - Alderdi kognitiboa sustatzeko, haurraren jakin-minetik abiatutako edozein ekintza egokia da
 - Aurreko biak
77. Hezitzaile gisa, nola bultzatuko zenuke 0-2 urteko haurraren garapena?
- Berarekiko harremana zainduz
 - Esploraziorako materialak eskura jarritz
 - Aurreko biak
78. Nola zuzendu behar zaio umeari?
- Gozotasunez
 - Gozotasunez, begiz begiko kontaktua mantenduz, umeak onarturiko kontaktu fisikoaz...
 - "B" erantzuna baina kontuan izanik umea ukitzea ez dela aproposena, ohitu egin daitekeelako
79. Zein baliabide erabil dezakegu haurraren alderdi afektiboa berariaz lantzeko?
- Ukimena.
 - Hizkuntza
 - Aurreko biak, besteak beste



80. Haurraren garapena bultzatzeko, nolako inplikazio maila izan behar du hezitzaileak?
- Handia. Umeari beharrezko segurtasuna bermatu behar dio, hortik abia dadin
 - Handia. Umeari beharrezko segurtasuna bermatu behar dio, baina, aldi berean, haurraren une autonomoak errespetatu behar ditu
 - Murriztua. Bere burua kontrolatu behar du, haurrari autonomia osoa emateko
81. Nola bermatu daiteke haurraren garapen osasuntsua?
- Haurraren beharrak aseztatu
 - Familiarekin elkarlanean
 - Aurreko biak
82. Zer egingo zenuke haurraren garapen osasuntsua bultzatzeko?
- Garapen osasuntsua berezkoa da; ez da ia ezer egin behar
 - Segurtasun afektiboa eskaini
 - Haurraren jarraipen zehatza egin, uneoro jakiteko guztia ondo doala
83. Zer egingo zenuke zure eskaera ulertzen eta onartzen ez duen ume baten aurrean?
- Zigortu egingo nuke nik, eskatutakoa ulertzeko eta hurrengoan berriz ez gertatzeko
 - Umeari nire eskaera ulertarazten saiatuko nintzateke
 - Ez nuke ezer egingo; horrela ulertuko luke nire eskaera
84. Haur bat besteari joka ari bazaio, zer pentsatuko zenuke?
- Ekintza hori lehenbailehen gelditu behar duzula
 - Eraso horren atzean arrazoiren bat dagoela
 - Aurreko biak
85. Nola murriztu daiteke umeen arteko eraso kopurua?
- Ezinezkoa da, hezitzaileak ezin du ezer egin
 - Hezitzaileak haurrei behatuz
 - Ez bata eta ez bestea
86. Nola ulertarazi dakioke ume bati gaizki dagoela jotzea?
- Gelako txoko batean denbora batez zigortuz
 - Besteen aurrean oso argi utziz zer egin daiteken eta zer ez
 - Berarekin hitz eginez eta azalpenak emanez
87. Noiz onartuko ditu hobeto umeak ematen zaizkion kontsignak?
- Hezitzailea gozotasunez zuzentzen zaionean
 - Hezitzaileak zorrotz eta argi hitz egiten dionean
 - Hezitzailea ez da garrantzitsua. Funtsezkoena umea bera da
88. Zertarako darabiltza askotan umeak kasketak?
- Helduaren arreta pizteko eta erakartzeko
 - Helduaren nahia eta egoera hondatzeagatik
 - Kasketek beste arrazoi sakon bat izaten dute
89. Zein da modurik onena haurraren kasketak ekiditeko?
- Aldez aurretik haurraren zeinuei behar bezala erantzutea
 - Haurraren beharrak asetzea
 - Aurreko biak
90. Nola jokatu zenuke haur batek kasketaldia badu?
- Ez nuke ezer egingo bere xantaiaren aurrean
 - Gelditzeko ahaleginak egingo nituzke



- c. Bere ondoan itxaron, lasaitu, eta gauzak eskatzeko bide hobeak daudela esango nioke
91. Bizitzaren lehen urteetan osasuna eta garbitasuna lantzen denean:
- a. Garrantzitsua da osasun- eta garbitasun-ohituren banakako erdiespena sustatzea, heldu-bizitzarako beharrezkoak izango baitituzte
 - b. Garrantzitsua da banakako eta taldeko osasun- eta garbitasun-ohiturak garatzea, alderdi hauekin zerikusia duten ohiturak hartzeko
 - c. Garrantzitsua da Haur-eskolan familia bakoitzean egon ahal diren osasun- eta garbitasun-ohitura desberdinak banaka desberdindu eta lantzea
92. Haurren osasunari dagokionez, hezitzaileak:
- a. Ez du medikuntza ikasketarik izan edo haurrekin mediku moduan jardun behar
 - b. Osasun-hezitzaile moduan jardun dezake, eta prebentzio- eta detekzio-programak gara ditzake
 - c. Familiarekin eta osasun-taldeekin harremanetan jartzera mugatu behar du, ezbehar bat gertatu edo gaixotasun-sintomak agertzen direnean
93. Osasunarekin eta garbitasunarekin lotutako ohiturekin lan egiterakoan:
- a. Alderdi hauekin zerikusia duten programa espezifikoak erabili beharko dira era sistematikoan
 - b. Ohitura hauen ikaskuntza azalpen eta adierazpen etengabeen bitartez bakarrik lortuko da
 - c. Haur-hezitzaileak kontuan izan behar du bere ekintzak errepikatuta haurrek ekintza horiek imitatzea eta bereganatzea lortuko dutela
94. Gauza jakina da ohiturak, elikadura eta bizimodua gaixotasunak izateko arriskuarekin lotuta daudela. Zein da Haur-eskolaren egiteko nagusia?
- a. Osasuna gurasoekin landu behar da, beraiena baita ardura. Bilerak, zirkularrak, mahai-inguruak, konferentziak... antolatu behar zaizkie
 - b. Osasun-prebentzioa eta osasun-sustapena ez da Haur-eskolaren egitekoa, osasun-sareak horretaz guztiaz arduratzen dira
 - c. Hezitzaileek osasun-printzipioak irakatsi behar dituzte eskolan egunero, instalazioak erabilia
95. Eskuak ongi garbitzea beharrezko higiene-ohitura da. Haurrek eta hezitzaileek maiz garbitu behar izaten dituzte eskuak egunero
- a. Ohiko infekzioen % 40 inguru eskuen bidez transmititzen baita
 - b. Ohiko infekzioen % 60 inguru eskuen bidez transmititzen baita
 - c. Ohiko infekzioen % 80 inguru eskuen bidez transmititzen baita
96. Edozein arrazoi tarteko, hezitzaileak eskuak garbitzeko ura edo xaboia eskura ez duenean, germenak akabatzeke aukera baliagarria eta eraginkorra da:
- a. Xaboidun zapiak erabiltzea
 - b. Eskularruak erabiltzea
 - c. 70 graduko alkoholarekin igurtzea
97. Txikienen jostailuak, haurrek ahoan erabiltzen dituzten jostailuak, ongi garbitu eta desinfektatu egin behar dira. Nola?
- a. Ur epeletan xaboz garbitu, eskuila bat erabiliz zirrikituetan. Eta gero ur garbitan pasatu
 - b. Lehengo bi urratsez gain, 10-12 minutuz jostailuak lixiba-disoluzio batean murgildu, atera, eta berriro ur garbitan pasatu behar dira
 - c. Ez da hainbesterako, ura eta xaboia aski dira



98. Arrazoi pertsonalengatik beren seme-alabak ez txertatzea erabakitzen duen pertsonak egon daitezke. Txertatzea derrigorrezkoa ez denez
- Txertatu gabe egotea ezin da arrazoi izan haurra eskolatik kanpo uzteko
 - Kutsatzeko arriskuengatik ez dira haur horiek eskolan hartu behar
 - Eskolan hasitakoan txertatzeko gomendatuko zaie senideei
99. EAEn indarrean diren osasun-protokoloen txertaketa-gomendioen arabera, zer egin behar dute Haur-eskoletan lan egiten dutenek?
- Ez dira gripearen kontra txertatu behar, 65 urte baino gehiago duten pertsonentzako gomendio baita
 - Pertsonal guztiari gripearen kontra txertatzea gomendatzen zaio, lehen haurtzaroan eragin handia duen gaixotasuna baita
 - Gripearen kontrako urteko txertaketa benetako arriskua duten zenbait talderi bakarrik zuzentzen zaie, Haur-eskoletako langileak izan edo ez
100. Edozein istripuren edo gaixotasun-sintomen kontra:
- Oso garrantzitsua da hurrari afektua eta lasaitasuna transmititzea
 - Beharrezkoa da ahalik eta arinen erreakzionatzea
 - Ez da ezer egin behar pediatrari deitu gabe
101. Hurrengo ekintzen artean, zein da egokiena haur batek infekzio-gaixotasun baten sintomak baditu?
- Familiari deitu ahalik eta lasterren bere bila joateko, eta bitartean beste hurrekin jolasten utzi
 - Beste haurrengandik aldentu, familiari deitu eta etengabe zaindu
 - Sintomen arabera behar duen botika eman, eta gurasoei bere bila etortzeko deitu
102. Transmisioko gaixotasunak:
- Haurtzaroan bakarrik izaten dira, eta eragin handiagoa dute Haur-eskolan, kutsatzeko aukera gehiago baitaude
 - Maiztasun handiagoarekin izaten dira haurtzaroan, eta Haur-eskola transmisioak erraztu dezake, kontaktuarekin kutsatzea errazagoa baita
 - Edozein adinekin izan daitezke, eta Haur-eskolara joateak ez du gaixotasunekin edo gaixotasunak kutsatzearekin zerikusirik
103. Haurren infekzio-gaixotasun hauen artean, zein transmititzen da ahora objektu kutsatuak eramateagatik edo ukitzeagatik?
- B hepatitis
 - Zizareak
 - Zoster herpesa
104. Hurrengo haur-gaixotasunen artean, zeinetan da beharrezkoa Osasun Sailari kasuaren berri ematea, talde handiago bati kutsatu baino lehenago?
- Hazizurriak
 - Elgorria
 - Meningitis birikoa
105. Haur batek barizelaren sintomak baditu, Haur-eskola utzi beharko du aldi baterako:
- Lesioak hasi direnetik bost egun
 - Lesioak lehortu arte
 - Aurreko bi aukeretako bat bete arte
106. Hurrek gauean zenbait ordu jarraian egin behar dute lo, eta goizean beren kabuz esnatu. Eta bazkaldu eta gero:
- Gauean lo egin ez dutenek bakarrik beharko dute siesta
 - Ez da komenigarria siesta egitea, gero gauean lo egiteko arazoak izango baitituzte

- c. Nahiz eta gauean zenbait ordu jarraian lo egin, 4 edo 5 urteko haurrentzat komenigarria da siesta egitea
107. Lotara joaterakoan:
- a. Komenigarria da haurrari lo egiteko erritualak jarraitzen uztea (ilea ukitu, jostailu batekin oheratu, txupetea ahora eraman...), beti gurasoen presentzia eska ez dezan
 - b. Pertsona heldu baten presentzia beti da beharrezkoa haurra lo gelditu arte
 - c. Nahiz eta ohitura zehatz bat erabili haurrari lo egiteko unea heldu dela identifikatzen laguntzeko, komenigarria da logelatik ez irtetea lo gelditu arte
108. Haur-eskolan lotan gelditzerakoan:
- a. Askotan haurrek lo egiten ikasi behar dute berriro (oso aktiboak direlako edo beraien inguruan gertatzen den guztia interesatzen zaielako, nagusiak direla sinesten dutelako...)
 - b. Batzuetan haurrek lo egiten ikasi behar dute, eta beste haurren erritmora ohitu behar dute
 - c. Normalean, haurrek etxean baino hobeto egiten dute lo
109. Hezkuntza-premia berezien arretarako gelan...
- a. Hezitzaileak hezkuntza-proposamen homogeneo bat egingo du
 - b. Hezitzaileak proposamen anitza egingo du, aniztasunari erantzuteko
 - c. Hezitzaileak kontuan hartuko du egoera bakoitzari dagozkion neurriak hartzea diskriminatzailea izan daitekeela
110. Hezkuntza-premia bereziak dituzten umeen kasuan, eskolara egokitzeko aldiak...
- a. Behar-beharrezkoa izaten jarraitzen du
 - b. Ez da beharrezkoa
 - c. Beharrezkoa da gurasoek horrela uste badute
111. Heldutasun-atzerapena duten haurretan...
- a. Egokiena denbora ematea da, eta heldu dadin itzarotea
 - b. Bere "gainen" egon behar da egun guztian
 - c. Egokiena hezkuntza-ekintza eragile eta eraginkorra da
112. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin ...
- a. Beraien aukeren arabera mailarik altuenean komunikatuko gara
 - b. Era erraz eta pausatuan komunikatuko gara
 - c. Komunikazioa keinuen bitartez izango da, funtsean
113. Hezkuntza-behar bereziak dituzten umeen kasuan, Hezkuntza-komunitateko eragileekiko koordinazioari dagokionez...
- a. Pediatria-zerbitzuari lehentasuna emango diogu
 - b. Familiarekiko koordinazioak estua eta ezinbestekoa izan behar du
 - c. Giza Zerbitzuari lehentasuna emango diogu
114. Garapenean atzerapen orokorra duten umeen kasuan...
- a. Hezitzaileari garapena behartzea dagokio, estrategia anitzak erabiliz
 - b. Familiak etxean lan berezia egin beharko du, Haur-eskolan emandako aholkuei jarraituz
 - c. Behar duten denbora eman beharko dute beren ingurua, objektuak, pertsonak, beren gorputza eta abar interpretatzeko eta ulertzeko
115. Entzumen-urritasuna duten haurren kasuan...
- a. Zailtasun nagusia ahozko hizkuntza ulertzea eta erabiltzea da
 - b. Ukimenari eman beharko diogu lehentasuna



- c. Inguruko gertaerak ulertzeko informazio osagarriak ez dute behar
116. Down sindromea duten haurren kasuan...
- Laguntza fisikoarekin batera, ahozko instrukzioak eman behar zaizkie, eta, zenbait jardueratan, baita ereduak ere
 - Orientatzeko zailtasunak dituzte
 - Ikasgelako altzariak egokitu behar dira, batetik bestera mugitzeko erraztasuna izan dezaten eta modu egokian eserita egon daitezen
117. Ikusmen urritasuna duten haurren kasuan...
- Aho-hizkuntzaren bitartez informazioa jasotzea ezinbestekoa da
 - Beste umeekin harremanak izateko zailtasunak dituzte
 - Ez dute estimulazio berezirik behar izaten
118. Autismoa duten haurren kasuan...
- Zailtasunak dituzte imitatze, besteek pentsatzen dutena ulertzeko eta arau sozialak ulertzeko
 - Helduen bitartekaritza behar izaten dute besteekin harremanak izateko
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira
119. Hezkuntza-premia bereziak dituzten umeak eskolatzerakoan...
- Familiarekin harreman oso estua izatea ezinbestekoa da, haurraren premiak zeintzuk diren jakiteko
 - Familiak egun osoa Haur-eskolan eman beharko du
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira
120. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak Haur-eskolan daudenean kontuan izan beharko dugu...
- Garbiketa eta elikadurako oinarrizko ohiturak irakasteak ez duela lehentasunik izango
 - Elkarrekintza izatea beste haurrekin, objektuekin eta jolasetan
 - Esfinterren kontrola ez dela Haur-eskolan egingo
121. Ordezko komunikazio sistemak (zeinuen hizkuntza) edo handitzaileak...espezifikoak dira kasu hauetan...
- Down Sindromea
 - Ikusmen urritasuna
 - Entzumen urritasuna
122. Gelaren eta zentroaren antolakuntzaren egonkortasuna eta altzarien aldaketan berri alde aurretik ematea aplikatzekoa izango da...
- Down Sindromean
 - Ikusmen urritasunean
 - Entzumen urritasunean
123. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan baztertzen saiatu behar da...
- Besteekin dituzten harremanetan heldu baten bitartekaritza aritzea
 - Joko sinbolikoa
 - Helduen eta berdinen gehiegizko babesa
124. Ikusizko arrastoak gehitu: etiketatu, jardueren adierazpen grafikoa, ikusteko ipuin eta liburuak..., estrategia interesgarriak dira haur hauekin lan egiteko...
- Ikusmen urritasuna dutenekin
 - Entzumen urritasuna dutenekin
 - Urritasun motorea dutenekin



125. Oso portaera inhibitua duten hurrekin...
- Interesgarriak dira onarpena, aitormena eta eskuragarritasuna adierazten duten ahozko komunikazio-estrategiak
 - Interesgarriak dira agindu zuzenak ("jolastu dena delakoarekin...") eta galderak egitea ("zergatik ez duzu abesten?")
 - Harremanak izateko lehenengo pausua beraiek eman dezaten itxaron behar dugu
126. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren familiei...
- komenigarria da Haurraren garapenari buruzko igurikapen (espektatiba) altuak ematea
 - Haurraren garapenari buruzko informazioa emateak kontraesanak sor ditzake familiaren eta Haur-eskolaren artean
 - Oso komenigarria da beren haurraren garapen positiboaren berri ematea, eta egiten dituen aurrerapenen berri ematea
127. Hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin lanean ari diren profesionalek...
- Beren kabuz bideratuko dituzte interbentzioak
 - Lankidetzan jardungo dute, koordinazioaren bidez
 - Koordinatuta jardungo dute, ezinbestean
128. Gutxiengo etnikoetako edo baztertutako kulturetako haurren kasuan...
- Gehiengo kulturaren zein ohituren transmisioa bideratuko dugu
 - Eskolako programazioan haurren jatorrizko kulturako jolasak eta elementuak sartu behar ditugu
 - Gehiengo kulturaren jolas tradizionalen bidez integratuko ditugu
129. Zer ulertzen dugu hezkuntza-premia diogunean?
- Eskola behar duten ikasleek ari gara
 - Sindrome edo urritasunen bat duten ikasleen behar espezifikoak dira, eskolaren bidez erantzun beharrekoak gainera
 - Edozeinek izan ditzakeen behar espezifikoak dira, eta eskolaren bidez erantzun beharrekoak
130. Noiz ematen dira hezkuntza-premia bereziak?
- Haur batek gainontzekoen maila ez duenean
 - Era askotako arrazoiengatik behar espezifikoak ematen direnean
 - Aurreko biak zuzenak dira
131. Gelan oinez egiten ez duen haur bat dago. Zer egingo zenuke?
- Hezkuntza-premia bereziak dituela esan eta laguntza bilatu
 - Haurra oinez ibiltzera behartu
 - Naturaltasunez hartu, erritmo kontua izan daiteke-eta
132. Zer dago Down Sindromearen jatorrian?
- Kromosoma kontua da
 - Jaio eta gero eskuratzen da
 - Ez bata eta ez bestea
133. Zein da ikusmen, entzumen edo mugitzeko urritasunaren jatorria?
- Jaiotzetik ematen dira beti
 - Jaio eta gero ematen dira beti
 - Ez bata eta ez bestea
134. Zein ezaugarri ditu Asperger sindromea duen pertsona batek?
- Ez du esploratuko
 - Ez du erraztasunez bere emoziorik azaleraziko
 - Aurreko biak

135. Ondorengozein alderdirekin lotuko zenuke Asperger sindromea?
- Down sindromearekin
 - Autismoarekin
 - Mugitzeko urritasunarekin
136. Nola diagnostikatuko zenuke autismo kasu bat?
- Ez nuke egingo, ez baita nire lana
 - Behaketa jarraituaren bitartez
 - Behaketa jarraituaren bitartez eta gurasoekin elkarrizketak izanik
137. Zer dira ikusmen urritasunak?
- Ikusteko edozein zailtasun
 - Itsua izatea
 - Aurreko biak
138. Zer dira entzumen urritasunak?
- Entzuteko edozein zailtasun
 - Gorra izatea
 - Gormutua izatea
139. Zer dira mugitzeko urritasunak?
- Hasieran ume guztiak duten mugitzeko zailtasuna, oinez ondo ibiltzen ikasi arte
 - Gurpildun aulkian joaten diren umeak, mugitzeko arazoak dituztenak
 - Ez bata eta ez bestea
140. Zer egin behar dugu autismoa duen ume batekin?
- Bere horretan onartu
 - Segurtasun afektiboa eskaini
 - Aurreko biak
141. Zer egin behar dugu entzumen urritasuna duen haur batekin?
- Beti ozenkiago hitz egin, ondo ahoskatuz, eta garbi hitz-eginez
 - Gurasoei eskola espezifikoko on bat aholkatuko diegu
 - Urritasunaren arabera eta haurraren gainontzeko ezaugarrien arabera
142. Nola komunikatuko ginatke ezer entzuten ez duen haur batekin?
- Marrazki eta irudien bitartez
 - Zeinu-hizkuntzaren bitartez eta, gainontzeko umeekin bezala, gorputz-hizkuntzarekin, besteak beste
 - Ezer entzuten ez badu, hobe da zentro espezifikoko batera joatea
143. Zer egin dezakegu ikusmen urritasun oso arina duen ikasle batekin?
- Agian nahikoa da hitzak handiago idaztea
 - Egokia izan daiteke haurra hezitzailearengandik hurbil jartzea, adibidez, ipuina ikusi ahal izateko
 - Aurreko biak
144. Nolako izan behar du hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearekiko esku-hartzeak?
- Gainontzeko haurrekin bezala jardungo dugu, baina zenbait gauza egokituz, haurraren arabera
 - Gainontzeko haurrekin ez bezala jardungo dugu, premia horiei erantzun nahi badiegu
 - Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak maiz hartuko ditugu laguntza-gelan
145. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin aritzeko...
- Garrantzitsua da gurasoekiko harremana

- b. Garrantzitsua da beste hainbat profesionalen harremana
 - c. Aurreko biak
146. Zein estrategia aukeratuko zenuke mugitzeko urritasuna daukan umearekiko esku-hartzean?
- a. Bere ongizate fisikoa bermatzea eta nahikoa denbora eskaintzea
 - b. Helduen gehiegizko babesa ekiditea
 - c. Aurreko biak
147. Zein estrategia aukeratuko zenuke entzumen urritasuna daukan umearekiko esku-hartzean?
- a. Esplorazio fisikoa eta ikusmena erabiliko nituzke informazioa jasotzeko bide alternatibo bezala
 - b. Estimulu kopurua gutxituko nuke, atentzioa zentratzeko
 - c. Ez bata eta ez bestea
148. Zein estrategia aukeratuko zenuke ikusmen urritasuna daukan umearekiko esku-hartzean?
- a. Ukitzeko material kopurua gehituko nuke
 - b. Helduen gehiegizko babesa saihestuko nuke
 - c. Aurreko biak
149. Zein estrategia aukeratuko zenuke autismoa daukan umearekiko esku-hartzean?
- a. Beste adierazpen-mota batzuk indartuko nituzke: musika, marrazkiak...
 - b. Bere interesak baloratuko nituzke
 - c. Aurreko biak, eta helduak lagundu diezaiola beste umeekin dituen harremanetan
150. Haur-garapenaren faseek:
- a. Ezaugarri komunak dituzte eta sekuentzia bat jarraitzen dute beti
 - b. Haur bakoitzean desberdinak dira, eta ez dira aldeztu aurretik zehaztutako etapa batzuekin erlazionatzen
 - c. Nahiz eta haur bakoitzean desberdinak izan, etapa komunak jarraitzen dituzte
151. Gizakion garapena azaltzen duten teoriak arabera, dimentsio desberdinak dituen prozesu konplexu honetan:
- a. Herentzia, hau da, faktore genetikoak, dira prozesu hau zehazten dutenak
 - b. Ingurunea, hau da, bizi-esperientziekin loturik dauden faktoreak, dira prozesu hau zehazten dutenak
 - c. Faktore biek garapena zehaztu eta errazten dute
152. Haurrek garatzen burutzen dituzten aurrerapenak:
- a. Osagai maduratibo handia daukate, hau da, zehaztuta dagoen gidoia jarraitzen dute, eta horregatik inguruan dauden pertsonen eragin txikia izaten dute
 - b. Osagai maduratibo handia daukate, baina aurrerapen horietako batzuk interakzioa eta estimulazio soziala (beste haur batzuk, been inguruko pertsona helduak) egoten badira gertatzen dira, bestela ez
 - c. Etxean edo Haur-eskolan inguruan dituzten pertsonen arabekoak dira
153. Haur-garapena zenbait aldi larritatik igarotzen da:
- a. Aldi hauetan zenbait lorpen barneratzen dira, baina une horretan lortzen ez badira zaila da geroago eskuratzea
 - b. Zenbait lorpen une horietan edo beste batzuetan eskura daitezke,, garapen malguari eta dituen berreskuratze-prozesuei esker



- c. Aldi hauetan pertsona helduek haurren portaerei egindako kritika oso garrantzitsua da
154. Mugimenduarekin zerikusia duen ezaugarri hauetako zein du 4 hilabeteko haur batek?
- Jesarrita egotea gustatzen zaio, begiak piztu egiten zaizkio, pultsua gero eta biziagoa bihurtzen zaio eta bere arnasa bizkortu egiten da burua orekan mantentzea lortzen duenean
 - Burua burkotik altxatzea gustatzen zaio, bere inguruan gertatzen den guztia ikusteko
 - Begirada luzaro geldirik uztea atsegin du, nahiz eta bere ikusmen-eremua mugatua izan bere buruaren mugikortasun-falta dela eta
155. Zenbat aste igaro behar dira haurra oreka mantenduz tente jesarri eta objektu bat hartu eta esku batetik bestera etengabe pasatu ahal izateko?
- 14 aste
 - 16-24 aste, tarte hori
 - 28 bat aste
156. Urtebeteko haurra/k lekuz aldatzerakoan:
- Azkartasunarekin katamiauka ibiltzen da, eskuak eta belaunak edo lau hankatan
 - Laguntzarekin oinez jartzen da, baina ez du oreka egonkorra mantentzen
 - Dagoeneko oinez ibiltzeko gauza da, baina alboetarantz mugitzen da, heldulekuren bati helduta
157. Zenbat hilabeterekin erdiesten da objektuaren iraunkortasun-nozioa Piaget-en teoria kognitiboaren arabera?
- 4-12 hilabeterekin
 - 12-18 hilabeterekin
 - 18-24 hilabeterekin
158. Haurra objektu bat bilatzeko gai da (koilara, jostailu bat...) nahiz eta hezitzaileak non ezkutatu duen ez ikusi. Zein adinekin?
- 12 bat hilabeterekin
 - 12-18 hilabete dituenean
 - 18-24 hilabete dituenean
159. Noiz ezagutzen dute haurrek beren irudia (ispilu baten aurrean, argazki batean...) eta beren izena esaten?
- Bizitzaren lehen urtean
 - Gutxi gorabehera bi urte egiterakoan
 - Gutxi gorabehera hiru urte egiterakoan
160. Haurrak ingurua esploratu eta manipulatzeko ekintza-eskema desberdinak buruz konbinatzeko gai denaren adibidea:
- Biberoia xurgatu
 - Biberoia eskuekin hartu
 - Biberoia burkopean bilatu
161. Piaget-en arabera, zein motatako zirkulu-erreakzioa egiten du haur batek adimen senso-motorraren aldian sehaskaren kontra txintxirrina apropos jotzen duenean?
- Lehen mailakoa
 - Bigarren mailakoa
 - Hirugarren mailakoa



162. Piaget-en arabera, hurrek operazio-aurreko adimena erabiltzen dutenean zenbait pentsamendu adierazteko (adibidez, "harriak bizirik daude"):
- Irudimen handia dutela edo marrazki bizidun asko ikusi dutela erakusten dute
 - Beren pentsamendu animistaren arabera objektu guztiak bizirik daudelako da
 - Pentsamendu artifizial bat sortzen dute ulertzen ez dutena azaltzeko
163. Zenbat urterekin dira gai hurrak, beren gaitasun kognitiboen garapenari esker, "sagar guztiak fruta direla" baina "fruta guztiak ez direla sagarrak" ulertzeko?
- 2 urte egin baino lehen
 - 2 eta 3 urte artean dituztenean
 - 3 urte egin eta gero
164. Zenbat urterekin erabiltzen dute hurrek "nirea" hitza, gauzen eta pertsonen jabetzarekiko interes handia eta beren egozentrismoa adierazteko?
- Bizitzaren lehen urtean
 - 2 urte egiterakoan
 - Gutxi gorabehera hiru urte egiterakoan
165. Haur-eskolan hurrek autonomo izaten ikas dezaten:
- Ikaskuntzaren alderdi kognitiboak landu behar dira
 - Maila afektiboan hazkunde pertsonala izatea bultzatuko da
 - Beharrezkoa da bai maila afektiboa bai maila kognitiboa lantzea
166. Atxikimendua zera da:
- Gizakien biziraupenaren alde egiten duen erreflexua
 - Pertsonen artean sortzen den lotura afektiboa
 - Jatorri biologikodun segurtasun afektiboa
167. Atxikimendua honako prozesua da:
- Jaiotzeko unean sortzen da eta haurtzaroaren amaieran desagertzen
 - Jaiotzerakoan sortzen da eta bizitzako lehen hilabeteetan desagertzen
 - Jaiotzerakoan hasten da eta helduaroan ere agertzen da
168. Haurraren eta inguruko helduen arteko atxikimendua:
- Modu automatikoan lortzen da
 - Eratzeko denbora behar da
 - Eratzeko gutxienez urtebete igaro behar da
169. Haurren eta gurasoen artean ezartzen den atxikimenduan:
- Hurrek bakarrik erakusten dute euren atxikimendua (helduari oratu eta harengandik bereiztu nahi ez izateko jokaeren bidez)
 - Helduek ez dute inoiz ere euren atxikimendua erakusten, atxikimendua beti hurrengandik gurasoenganakoa baita
 - Hurrek ez ezik, eurekin erlazionatzen diren helduek ere euren atxikimendua erakusten dute (haurra uneoro zelatatuz esate baterako)
170. Teoria etologikoek honela azaltzen dute atxikimendua:
- Lehen mailako behar unibertsala da
 - Bigarren mailako behar ikasia da
 - Beharren asetzeari oinarritutako erlazioa da
171. Aitarekiko, amarekiko edo beste atxikimendu irudi batekiko (zaintzailea, senide bat) banaketagatik larritzen den eta atxikimendu irudiaren itzulerarekin erraz lasaitzen den haurraren eta bere atxikimendu-irudiaren arteko erlazio afektiboa:
- Segurua da
 - Iheskorra da

- c. Desafiatzailea da
172. Atxikimenduak ondorengo zein funtzio betetzen du?
- Haurren biziraupenaren alde egiten du
 - Segurtasun emozionala eskaintzen du
 - Aurreko bi funtzioak betetzen ditu
173. Haurrek beren inguruko pertsona helduak ezagutu eta nahiago izaten dituzte, ezezagunak baztertzeko dituzte eta batzuetan arrotzekiko beldurra erakusteraino iristen dira:
- 0 eta 3 hilabete bitartean
 - 3 eta 6 hilabete bitartean
 - 6 eta 12 hilabete bitartean
174. Haur bakoitzaren garapenak bere erritmoa baldin badu ere, hamabi bat hilabete dituen haurra, identitate eta autonomia pertsonalaren eremuan, zer egiteko gauza izaten da?
- Ura edateko gai da, bi eskuekin helduta; pilota, esku batez bultzatzen du; maitasuna adierazten du (musuak, besarkadak)
 - Bere oinei heltzen die eta ahora eramaten ditu; lau hanketan ibiltzeko lehen mugimenduak egiten hasten da; galletak berak bakarrik jaten ditu
 - Kentzeko errazak diren arropak berak eranzten ditu; bere gorputzeko zenbait atal ezagutzen ditu (begiak, ileak, ahoa, belarriak)
175. Haur bakoitzaren garapenak bere erritmoa baldin badu ere, sei bat hilabete dituen haurra, ingurune fisikoaren eta sozialaren eremuan, zer egiteko gauza izaten da?
- Materialak aztertu eta maneiatzen ditu (lurra, plastilina); helduek hala eskatzen diotenean, gauzak ematen ditu
 - Helduari laguntzen dio materialak biltzen; panpinari jaten ematen dio eta oheratu egiten du; beste haur batzuen ondoan jolas egiten du
 - Irribarre egiten du ezagutzen dituen pertsonen aurrean; eskuetan dituen objektuekin jolas egiten du (astintzen, kolpeak ematen)
 - Beste leku txikiago batzuetan banaturik egongo da eta esplorazioa eta elkarrekintzak garatzea du helburu
 - Leku horretan, jokoak jarduera sinbolikorako soilik erabiltzen dira
363. Egokitzapena:
- Ume guztientzat berbera da
 - Egokitzapenean, derrigorra da ume bakoitzaren erritmoa errespetatzea
 - Ezberdina da, baina, ahal dela, ume guztientzat berbera izan behar du
364. Egokitzapen fasearen funtsa zein da?
- Eskolan, esplorazioa ahalbidetzeko moduan egokitzea espazioak eta materialak
 - Haurrak eskolarako beste atxikimendu-modu bat senti dezala
 - Umeen arteko elkarrekintzak egokitzea, harreman onak ziurtatzeko
365. Haurra eskolan hasi aurretik, zer egingo dugu familiarekin?
- Ahalik eta informazio gehien eskuratu
 - Egokitzapenaren garrantzia jakinarazi
 - Aurreko biak
366. Egokitzapen fasean
- Familiarekin lan egin behar dugu
 - Umearekin soilik lan egin behar dugu
 - Familiak eskatzen badu, familiarekin ere lan egin dezakegu
367. Gurasoak ere egokitu behar dira
- Ez dute horretarako arazorik
 - Ez dute beharrik
 - Askotan umeari baino gehiago kostatzen zaie
368. Pedagogiaren ikuspuntutik, eguneroko bizitza
- Hezitzaileak erabil dezakeen hezkuntza-baliabide handienetako bat da
 - Haurrentzako soilik da garrantzitsua
 - Ez bata ez bestea
369. Azturak dira
- Erabileraren bidez automatizatu diren jarduera-prozedurak
 - Ikasleen heziketan eragin positiboa izateko erabil daitezkeen baliabideak
 - Aurreko biak
370. Azturek,
- Helburu bat dute beti
 - Berrantolamendu tresnak dira
 - Ez bata ez bestea
371. Higienean garrantzitsua da:
- Hezitzaileak umearekin duen elkarrekintzaren kalitatea eta erritmoa errespetatzea



- b. Denekin berdin jokatzea, inor atzeratua gera ez dadin
 - c. Hezitzailearentzat, errutina horrek ez du garrantzi berezirik.
372. Higienea
- a. Beste ume guztiek lortzen duten ohitura bat besterik ez da
 - b. Gainditu beharreko helburu bat besterik ez da
 - c. Haurrentzat pertsonalizazioaren une eta egoera garrantzitsuenetariko bat da
373. Higieneak
- a. Gorputz atalarekin egiten den mugimendua ahotsaz indartu ahala, garrantzitsua da jolas, abesti edo lelo egokiak prestatzea
 - b. Denbora behar du eta pazientziaz jokatu behar da, haurren gorputzarekiko kontzeptua atsegina ere izan dadin
 - c. Aurreko biak
374. Higieneari dagozkion azturei buruz esan dezakegu,
- a. Hasi aurretik ume askok beldurra diotela
 - b. Baina kezketako asko lehen egunetan sortzen direla
 - c. Aurreko biak
375. Higieneari dagokionez, erakutsi behar diren azturak dira:
- a. Komunean eseri eta altxatu, eskuak garbitu eta lehortu, esfinterrak kontrolatzen ikasi
 - b. Garbi eta zikin noiz dagoen ikasi, bainu-gelak erabiltzeko moduan uzten ikasi
 - c. Aurreko biak
376. Higieneari dagozkion azturek
- a. Bi alderdi dituzte: harremanarekin lotua dagoena eta hezkuntzarekin lotua dagoena
 - b. Hiru alderdi dituzte: harremanekin lotua dagoena, nazkarekin eta ikaskuntzarekin lotua dagoena
 - c. Lau alderdi dituzte: harremanekin lotua dagoena, nazkarekin, ratioekin eta ikaskuntzarekin lotua dagoena
377. Haurren higieak baliteke hezitzaileari kezka eragitea,
- a. Ume problematikoekin sentimendu positiboak garatzeko eta komunikazio-harremanak izateko orduan
 - b. Kezka umeengan sortzen da ez hezitzaileengan
 - c. Gatazka sortzen bada, umeak arazoak dituelako da, eta hezitzaileak egoera bideratzen asmatu behar du
378. Zergatik dira garrantzitsuak Haur Hezkuntzako ikastetxeei atxikitako kanpo guneak?
- a. Nagusiki atsedean lekuak direlako
 - b. Haurren osasunerako lagungarriak direlako eta haizea hartzeko balio dietelako
 - c. Osasunerako ez ezik, ikaskuntza intelektual eta sozialerako ere lagungarriak direlako
379. Haur-eskolako txikienen (lau-hamabi hilabete) gela hornitzerakoan, ondoko hiru baliabide multzoetatik zein lehenetsiko dugu?
- a. Jostailuak; puxikak; sehaskak; eta musika tresna egoki bat
 - b. Ispilu handi bat pareterako; ur beroa arraskan; eta jolasean ibiltzeko eta erraz garbitzeko moduko lur egokia.
 - c. Zuzenean kalera ateratzeko aukera; biberoiak berotu ahal izateko leku egoki bat; eta jostailuak



380. Zein material mota eskainiko zaie haur txikienei, esplorazio-jolaserako estimulutzat?
- Gaur egungo merkatuan adin tarte guztietara egokitutako jostailuak daude, aprobetxatu egin beharko genituzke
 - Haurrak hainbat eta hainbat material mota erabiltzen dituzte jolaserako, ez bakarrik jostailuak
 - Irensteko arriskurik gabe, ahora eraman ditzaketen jostailuak
381. Ondorengo jostailu taldeetako batek energia eta pazientzia eskatzen du, gaitasunak handitu eta aurretik agertutakoak finkatzen ditu. Zeinek?
- Trizikloak, eraikuntzak, puzzleak...
 - Jolas sentzorialak, musika kutxak, txintxirrinak, eta beste hainbat objektuk...
 - Aho korapiloak, asmakizunak, ikusi-makusi jolasak...
382. Pilotak (hainbat ehunduratakoak), musika kutxak, goma biguneko objektuak, jostailu itsaskorrek, zein adin tarterako dira egokien?
- 3 eta 6 hilabete bitarterako
 - 6 eta 12 hilabete bitarterako
 - 12 eta 18 hilabete bitarterako
383. Eskularrudun txotxongiloak, bultza egiteko eta arrastatzeko jostailuak, ipuin liburuak, eraikitze eta sailkatze blokeak, tamaina anitzetako pilotak, zein adin tarterako dira egokien?
- 3 eta 6 hilabete bitarterako
 - 6 eta 12 hilabete bitarterako
 - 12 eta 18 hilabete bitarterako
384. Irudi sinpleen sailkatzailea, plastikozko blokeak, bainurako jostailu flotatzaileak, jaioberri panpinak, zein adin tarterako dira egokien?
- 12 eta 18 hilabete bitarterako
 - 6 eta 12 hilabete bitarterako
 - 3 eta 6 hilabete bitarterako
385. Txiki-txikitan...
- Haurregana, ahalik eta gehien, banaka hurbildu behar badugu, talde txikitan lan egin beharko dugu, binaka eta baita banaka ere.
 - Aukera interesgarriena talde handiekin lan egitea da.
 - Aukerarik interesgarriena hiru eta bost ume bitarteko taldeekin egiten den lana da.
386. Asanblada edo korroa...
- Jarduera horrek hizkuntzaren garapena bultzatzen du
 - Aurreko baieztapena ez da guztiz egia, beti haur berberak parte hartzeko jarrera dutelako, komunikazio trebetasun hobekak dituztenek alegia
 - Horixe da egoerarik onena haur lotsatuenek lotsa gal dezaten
387. Talde txikietan egiten den lanak zera suposatzen du...
- Haur gutxirekin egotea (3 edo 4)
 - Gelako hainbat gunetan hainbat jardura egin daitekeela, berdinen arteko interakzioa bultzatuz, bizi-bizi
 - Hezitzailearekin batera haur-kopuru txiki bat egongo dela (3 edo 4), hartara, denei banan-banan erantzun ahal izateko
388. Gure planifikazioak autonomia sustatzen badu...
- Helduak lehentasunezkoak iruditzen zaizkion gauzetan aritzeko aukera izango du



- b. Helduak banakako atentzio handiagoa behar duten hurrekin lan gehiago egiteko aukera izango du
 - c. Aurreko erantzun biak zuzenak dira
389. Taldeko antolakuntzak zera erraztu behar du...
- a. Jolas kideak aukeratzeko aukerak
 - b. Helduak berdinen arteko zenbait interakzio bideratzen jardun ahal izatea
 - c. Aurreko erantzun biak zuzenak dira
390. Haurrak ekintza interpersonaletan parte hartzeko gogoia edukitzeko, ezinbestekoa da...
- a. Aurretiaz, kontzentrazioa jarduera batera mugatzeko gai dela frogatzeko aukerak eduki behar izan ditu, mundua ezagutzeko gogora
 - b. Bere gaitasunetan eta bere ikasteko gaitasunean konfiantza dugula bizi izatea aurretiaz
 - c. Hezitzaileak haurren jarduera autonomia planifikatzea
391. Haur-eskolan 0-1 urteko hurrekin sortzen diren partaidetza testuinguruak...
- a. Gauza batzuetan, familian sortzen direnen parekoak dira.
 - b. Egituraz eta helburuz, ez dira familian burutzen direnak bezalakoak.
 - c. Gehienak, taldeko partaidetzaren testuingurukoak dira.
392. Talde handian antolatzea egokia da...
- a. Jatorduaren unean
 - b. Ipuin labur, kontakizun edo olerki bat entzuteko
 - c. Pardela aldatzeko
393. Taldeak egiteko aukera desberdinen konbinazioak zera erraztu behar du...
- a. Familiekin harreman erraza izatea
 - b. Hezitzaileen arteko koordinazioa
 - c. Haur guztiek aintzat hartuak, preziatuak, entzunak, estimulatuak... direla sentitzea
394. Talde mota ezberdinei esker...
- a. Haurrak banakako arreta jasotzeko zein taldearekin egoteko uneak eta tokiak izango ditu
 - b. Haurrak banakako arreta jasotzeko uneak eta tokiak izango ditu
 - c. Haurrak taldearekin egoteko uneak izango ditu
395. Talde handietako ekintzetan...
- a. Hurrek libreki aukeratzen dituzte beraien ekintzak
 - b. Hezitzailea da argi eta garbi haurren ekintzak adierazten dituen
 - c. Hezitzaileak gidatzen ditu haurren ekintzak, proposaturiko ekintzak zenbaterainoko arreta pizten duen kontuan hartuta
396. Haur-eskolan, oro har, taldeek...
- a. Ez dute itxiak izan behar; aitzitik, haurren eta hezitzaileen arteko harreman-aukera desberdinak bultzatu behar dituzte
 - b. Zorrotzak eta egonkorrak izan behar dute, hurrek aurreikusi ahal izateko eta, hartara, segurtasuna emateko
 - c. Ahalik eta malguenak izan behar dute, taldearen aniztasunari eta haur bakoitzaren beharrei erantzuna emateko
397. Banakako ekintza bideratzeko...
- a. Familiek etxetik ekarri beharko dituzte haurra gehien entretenitzen duten jolas edo materialak
 - b. Hezitzaileak aurrez antolatu beharko ditu guneak eta materialak



- c. Kasu guztietan hezitzailea izango da jolasaren edo materialaren aukera egingo duena
398. Taldeak egiteko irizpideen artean dago...
- Haurraren autonomia bultzatzea
 - Erritmo- eta interes-aniztasuna errespetatzea
 - Aurreko erantzun biak zuzenak dira
399. Eguneko une batzuetan, talde handiko lana(k) (elkarrekin abestu, ipuin bat entzun...)
- Oso positiboa izan daiteke gelako giroari eta kohesioari begira
 - Haurrak "etiketatzea" galarazten du
 - Ahozko interakzioa sustatzeko estrategia egokia da
400. Talde handian lan egitea egokia da...
- Garapen indibiduala bultzatzeko
 - Kultur tradizioko ipuinak, kantak eta olerkiak lantzeko
 - Gorputz-adierazpena lantzeko.
401. Haurraren bikotekako hartu-emanak ugaritu egiten dira...
- Atxikimendua sortzen dutenean
 - Egozentrismoa galtzean
 - Kideen arteko jokabidea adieraztean
402. Haur-eskolan talde handietan egindako lanak...
- Parte-hartzea sustatzeko antolamendua eskatzen du
 - Espazioaren antolamendu jakin bat eskatzen du, heldua denek ikusteko moduan egon dadin
 - Ez du espazioaren antolamendu jakinik eskatzen
403. Haurrekin taldeak egiterakoan, helduak...
- Ez ditu kontuan hartu behar sortzen diren harremanak
 - Elkarren arteko estimulazioa eta elkarlana sustatzen duten konbinaketak bultzatu behar ditu
 - Talde homogeneoak bultzatuko ditu
404. Taldeak...
- Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak nabarmendu behar ditu
 - Gelako heterogeneotasuna islatu behar du
 - Aurreko erantzun biak zuzenak dira
405. Materialari dagokionez:
- Komeni da material zaharra etengabe berritzea, hezkuntza-asmoak aldatzen doazen heinean
 - Apaletan ongi ordenatua egon behar du, guk nahi dugunean ateratzeko
 - Haurren eskura egon behar du, eta hezkuntza-asmoekin bat etorri
406. Materialari dagokionez:
- Gelatik kanpo, baina komeni zaigunean erabiltzeko prest egon behar du
 - Funtsezkoa da eskura edukitzea eta era askotakoa izatea
 - Ez bata eta ez bestea
407. Bitartekoen erabileran, hezitzaileari dagokio:
- Jarduerak burutzeko material egokiena zuzen aukeratzea
 - Materialak haurraren garapen integralean eraginkorrak izatea
 - Aurreko biak



408. Hezkuntza-materialaren eraginkortasunak
- Haurraren dimentsio askotariko prozesu bat eragiteko duen ahalmenari lotuta egon behar du
 - Hobe da dimentsio bakarreko material oso esanguratsua erabiltzea
 - Dimentsioek ez dute zerikusi handirik materialen eraginkortasunarekin
409. Materialen ezaugarria izango da
- Jarduera ludikoaren bidez lan egiteko aukera ematea
 - Aurrekoaz gain, jarduera fisikoa eta buru-jarduera bultzatzea
 - Ez bata eta ez bestea
410. Materiala sailkatu eta aztertzeko unean, irizpide hauek erabiltzen dira:
- Jatorria eta erabilera
 - Balio pedagogikoa eta jarduerekin eta curriculum-arloekin duen erlazioa
 - Aurreko biak
411. Merkatuko materialei eta ikastetxean bertan egindakoei dagokienez,
- Merkatuan beti ez ditugu aurkitzen eskolan behar ditugun materialak
 - Hobeak dira merkatukoak ikastetxean ditugunak baino
 - Aurreko biak
412. Material suntsigarriei dagokienez (pinturak, koloretako arkatzak, pintzelak, papera,...),
- Oso garrantzitsua da ez izatea toxikoa eta segurtasuna kontuan hartzea
 - Haurraren garapen fisikoaren arabera aukeratuko dira
 - Aurreko biak
413. Material aukeraketa
- Haur-taldearen garapenaren eta heldutasun-mailaren arabera egingo da.
 - Denentzako baliagarriak direnak aukeratu behar dira
 - Aurreko biak
414. Zein baldintza bete behar dute materialek?
- Haurren gustukoak izatea
 - Curriculumean zehaztutako alderdiak lantzeko balio izatea
 - Aurreko biak
415. Nola antolatuko ditugu materialak?
- Ahal bada, erlazionatuta daudenak toki berean jarriko ditugu
 - Garapena osotasunean gertatzen denez, horrek ez du garrantzirik
 - Aurreko biak
416. Identitatea eta autonomia garatzeko materialei dagokienez,
- Baliabide nagusia gorputza bera da
 - Hainbat osagarri erabiltzen dira; adibidez, kuxinak, koltxonetak, trapuak, txirrista, pilotak eta uztaiak
 - Aurreko biak
417. Natur eta gizarte-ingurunea ezagutzeko materialei dagokienez, azpimarratzekoak dira
- Sentimenen heziketarako, behaketarako eta esperimentaziorako baliagarri direnak
 - Gogorrak eta malguak direnak, koloretakoak eta kolore gabekoak
 - Ez bata ez bestea
418. Ahozko hizkuntzarako materialei dagokienez, ahalbidetu behar dute
- Ahoskera zuzena, irudimen- eta sormen-hizkuntza

- b. Hiztegia, memorizazioa, ulermena eta interpretazioa
 - c. Aurreko biak
419. Matematika-hizkuntzarako materialei dagokienez,
- a. Inguruneko elementuekiko harremanak indartzeko baliagarri izan behar dute
 - b. Zenbatzeko balio behar dute
 - c. Aurreko biak
420. Musika eta gorputz-hezkuntzarako materialei dagokienez, gorputzaren eta erritmoaren heziketarako,
- a. Perkusioko musika-tresnak hartzen ditugu abiapuntutzat
 - b. Gorputza bera hartzen dugu abiapuntutzat
 - c. Aurreko biak
421. Ikus-entzunezko baliabideen funtzio nagusiak dira:
- a. Motibatzea eta informatzea
 - b. Motibatzea, informatzea, argitzea eta prestatzea
 - c. Motibatzea, informatzea eta prestatzea
422. Ikus-entzunezko baliabideei buruz, hezitzaileak kontuan hartu behar du
- a. Umeak gai direla baliabideok erabiltzeko
 - b. Berak bakarrik erabili behar ditu, inolaz ere ez umeek
 - c. Modernoenak erabili behar dira
423. Helduen ikuspegitik, jolasa garrantzi handiko elementua da haurraren garapenaren hainbat alderdi lantzeko. Hain zuzen ere, jolasak...
- a. Haurra haztea eragiten du; gauzak aurkitzen eta esperimendatzen eta pentsamendua ordenatzen laguntzen du, eta, gainera, balio terapeutiko bat ere izan dezake
 - b. Haurra haztea eragiten du, giharrak dantzan jartzen dituelako jolasak dakarren mugimendurekin, eta gauzak aurkitzen eta esperimendatzen ere laguntzen du: formak, neurriak...
 - c. Lasaigarri dira haurrentzat, eta nolabaiteko balio terapeutikoa dute; objektuekiko esperimendazioa sustatzen dute. Baina gorputzaren eta buruaren garapenak ez dute jolasarekin zerikusirik
424. Jolas sinbolikoak sormena eta irudimena garatzen laguntzen du, eta barne sentipenak adierazteko erabiltzen du haurrak. Noiz egiten ditu horrelako jolasak haurrak?
- a. Gutxi gora behera 24 hilabete inguru dituenean
 - b. 12 hilabetetik aurrera
 - c. Datu hau oso aldakorra baldin bada ere, gutxi gora behera 18 hilabetetik aurrera
425. Altxorraren kutxa jolas bat da: saski bat objektu arruntez betetzen da, eta umeek aurkitu eta aztertu egin behar dituzte. Zeinentzat da egoki altxorraren kutxa?
- a. Bi urte beteta dituzten haurrentzat, ordurako objektuak egoki esploratzeko gaitasuna eskuratu dutelako
 - b. 6-12 hilabeteko haurrei zuzenduta dago. Garai honetan, eserita egon daitezke, baina ezin dute alde batetik bestera mugitu
 - c. Urtebeteko haurrentzat da egokien. Zutik egon eta pittin bat mugitzeko gai dira
426. Altxorraren kutxan lurrean uzten da maiz, eta objektu mordoxka bat sartu ohi da. Zenbat objektu izaten dira?
- a. Hamar edo hamabi inguru behar dira gutxienez (10-12)
 - b. Ez behintzat hogeita hamar baino gehiago (30)



- c. Gutxienez hirurogei (60) objektuekin betetzen da kutxa
427. Gaztetxoentzat altxorren kutxan sartuko ditugun objektuek zein ezaugarri izango dituzte?
- Originalak, koloretsuak, higienikoak eta frogatuak
 - Sentsazio argiak eta haurren egunerokotasunean agertzen diren sentsazioak eragiten dituzten materialak
 - Edozein objektu mota, betiere umeentzako arriskutsuak ez badira
428. Altxorraren kutxa bukatutzat eman behar da, umeak kontzentrazioa eta jolasarekiko interesa galtzen duenean. Zenbat iraun ohi du altxorren saskiaren jolas-saio batek?
- Saio motzak izaten dira, bost bat minutukoak
 - Gutxi gorabehera 20/30 minutu irauten du
 - Saskia ordubete inguru utzi behar da haurren eskura, aukera gehiago emateko
429. Zein da hezitzailearen egitekoa haurra altxorren kutxan objektuak aurkitzen eta miatzen ari den bitartean?
- Haurrekin batera jolastuko du, horrela jolas aberasgarriagoa izango da eta
 - Ingurua prestatu, eta bigarren mailan geratuko da; begirada edo/eta irribarre bat nahikoa da haurrak eroso eta lasai jardun dezan
 - Ingurua prestatuko du, ez besterik. Gero bere presentzia oztopo bat izan daiteke haurren inizatiba eta autonomiarako
430. Jolas heuristiko batean ari direla, umeek objektuak erabiltzen dituzte: sartu, atera, ireki, itxi, bildu, banatu, zintzilikatu, pilatu, eta abar.
- Altxorraren kutxa eta jolas heuristikoa kontu bera dira
 - Jolas heuristikoa altxorren kutxaren jarraipena da
 - Batak ez du bestearekin zerikusirik
431. Jolas heuristiko batek bi fase izan ohi ditu:
- 1)Materialak aurkitu eta 2) materialak erlazionatu
 - 1)Materialak aurkitu eta 2) aurkitutakoa komentatu
 - 1)Objektuak erabili eta 2) txukun jaso
432. Jolas heuristiko bat proposatzeko, zein oinarrizko baldintza izan behar dira gelan?
- Material egokiak izatea (objektuak, ontziak eta poltsak), hori da garrantzitsuena
 - Gelan giro egokia (lasaia) egon behar du, eta gainerako materialak jasotzea komeni da
 - baliabide egokiak, giro lasaia, gela jasota edukitzea eta, ahal dela, bigarren hezitzaile bat komeni da
433. Psikomotrizitateak hauxe eskaintzen dio haurrari:
- Bere gatazkak gainditzeko eta bere beldurrekin jolas egiteko adierazpidea
 - Hitzez eta hitzik gabe komunikatzeko ahalmena garatzeko aukera
 - Haur-eskolarekin duen lehen harremana errespetuzkoa eta atsegina izatea, bai eta atxikimendua dien pertsonetatik lehen aldiz bereizten den unea ere
434. Psikomotrizitateak ondorengoa eskaintzen dio haurrari:
- Mugimendu-gaitasunak hezitzaileak proposaturiko zirkuitu landuen bitartez garatzeko aukera
 - Bere heldutasun psikologikoko prozesuak bizitzeko espazioa eta denbora, prozesu horren globaltasuna errespetatuta

- c. Gozamen pertsonala eta atsegina
435. Psikomotrizitateari esker, ondorengoa lor dezakegu:
- Barruan-kanpoan, urruti-hurbil eta abar bezalako kontzeptuekin lan egitea
 - Jarduera gidatu baten testuinguruan haurraren ekintzari behatzea
 - Ibilbideak pertsonalizatzea, egokitzapena errazteko eta haurrari segurtasun emozional handiagoa eskaintzeko, bere nahiak eta beharrak adierazteko bide emanez
436. Zein da psikomotrizitate saioan sartzeko erritualaren funtzio nagusia?
- Jarduerari hasiera ematea
 - Minik ez hartzea eta inori minik ez egitearen araua gogoraraztea
 - Haurrak lasaitzea
437. Psikomotrizitate saioetan erabiltzen diren materialen artean daude...
- Goma-aparezko blokeak, sokak eta oihalak
 - Goma-aparezko blokeak, puzzleak eta oihalak
 - Goma-aparezko blokeak, sokak eta lotoak
438. Psikomotrizitate saioan haurra(k)...
- Ez da joko sinbolikoetara jolasten
 - Imitatu egiten du, "balitz bezala..."-ra jolasten du, bere mugitzeko ahalmenak esperimentatzen ditu...
 - Musika eta erritmoa gorputz-adierazpenarekin uztartzen ditu
439. Psikomotrizitatearen edozein saiotan, hezitzailearen betekizuna da...
- Arauk betetzen direla egiaztatzea, lagun sinbolikoarena egitea, joko gidatuak proposatzea...
 - Arauk betetzen direla egiaztatzea, gehien mugitzen diren haurrak lasaitzea, entzuteko jarrerari eustea...
 - Arauk betetzen direla egiaztatzea, lagun sinbolikoarena egitea, entzuteko jarrerari eustea...
440. Zertan datza begirada periferikoa?
- Hezitzailearen ikusmenetik kanpo haur bat ere ez egotea
 - Arazoak izan ditzaketen haurrei gehiago erreparatzea
 - Behaketak haur-talde txikietan zentratuz joatea pixkanaka
441. Psikomotrizitate saioaren azken fasean, adierazpen-espazioan erabiltzen dira...
- Ipuinak, ahokatzeko jostailuak, papera eta koloretako argizariak...
 - Ipuinak, eraikuntzak egiteko zurezko piezak, papera eta koloretako argizariak...
 - Ipuinak, eraikuntzak egiteko zurezko piezak, trizikloak eta taka-taka ("corre-pasillos")...
442. Adierazpen-espazioaren funtzioa da...
- Gorputz-adierazpenaren bidez kanporatzea gelan bizitako emozioak
 - Ematen zaien materialaren ezaugarriak esploratzea eta ikertzea
 - Beren bizipenak eta emozioak sinbolizatzea eta adieraztea
443. Psikomotrizitate-gelan, helduak...
- Zuzenean eta modu parte-hartzailean behatzen du, jarrera emotibo harkorrarekin
 - Zuzenean eta modu ez parte-hartzailean behatzen du
 - Zeharka eta parte hartu gabe egiten du behaketa



444. Psikomotrizitate-gelan, helduak...
- Haurrari erreparatzen dio bere jarrera ulertzen saiatu gabe
 - Haurrari erreparatzen dio babesteko eta lasaitzeko
 - Parte hartu gabe erreparatzen dio haurrari
445. Psikomotrizitate-saio baten hasierako behaketak...
- Taldean lantzeko helburuak aukeratzea ahalbidetzen digu
 - Banaka landuko diren edukiak aukeratzea ahalbidetzen digu
 - Haur jakin batentzat banaka lantzea edo talde txiki batean sartzea hobe den erabakitzea ahalbidetzen digu
446. Psikomotrizitateak honakoa egiteko aukera ematen digu:
- Gorputzaren kontrola nola garatzen eta aldatzen ari den ikusteko
 - Haurren mugitzeko gaitasunak proban jartzeko
 - Haurren mugitzeko gaitasunen mugak gainditzeko
447. Ondorengo espazio-denbora antolaketetatik, zein EZ dagokio psikomotrizitate saio bati?
- Espazio sentsoriala eta motorra
 - Sarrera-erritua
 - Familiekin hartu-eman
448. Helduen egoteko moduetatik, zein EZ da psikomotrizitate saio batean egoteko modu egokia?
- Oinarri segurua
 - Jardueren antolatzailea
 - Lagun sinbolikoa
449. Helduen egoteko moduetatik, zein EZ da psikomotrizitate saio batean egoteko modu egokia?
- Entzuteko jarrera
 - Teknizitatea
 - Jarduera gidatuen planifikazioa
450. Psikomotrizitateak...
- Haurrari bere mugimendua menderatzen laguntzen dio, eta gainerako haurrekin duen harremana hobetzen
 - Haurrari bere beldurrak ezagutzea eta haiei aurre egitea ahalbidetzen dio, bere fantasiak proiektatzea...
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira
451. Psikomotrizitatearen bitartez...
- Haurraren oinarrizko mugimendu-gaitasunak zein gaitasun espezifikoak garatzen eta hobetzen saiatzen gara
 - Haurrek hobeto ezagutzen dute errealitatea, baita espazio-denbora nozioak ere
 - Haurrek komunikazio-gaitasuna garatzen dute, hainbat mintzairaren bidez
452. Psikomotrizitateak ondorengoa ahalbidetzen die haurrei:
- Erritmoa garatzea
 - Norberaren gorputza ezagutzea geldirik dagoela edo mugitzen ari dela
 - Koloreak, formak, tamainak eta abar bereiztea
453. Haur Hezkuntzan komunikazio adierazpenak:
- Arloka landu behar dira, gauza desberdinei buruz ari garelako
 - Ia edozein jardueretan lantzeko eta garatzeko aukera dago
 - Ez dira berdinak, bereziki ahozko adierazpenak du garrantzia



454. Nola komunikatzen dira 0-3 urte bitarteko haurrak?
- Gorputzaren bidez
 - Ahoz
 - Ez bata eta ez bestea
455. Plastika-adierazpenean, hauxe da marrazketaren garapena:
- Hasieran zirriborroak egiten dituzte, gero marrazkien kopiak eta ondoren kopia hauei esanahia ematen diete
 - Hasieran zirriborroak egiten dituzte, gero zirriborroek objektu errealean itxura hartzen dute eta ondoren gai dira kopiatzeko
 - Hasieran kontrolik gabeko zirriborroak egiten dituzte, pixkanaka horiei esanahia ematen diete, eta ondoren bizitza errealeko objektuak marrazteko interesa erakusten dute
456. Adierazpen grafikoaren etapak dira:
- Zirriborroa, eskema aurrekoa eta eskema garaia
 - Zirriborro aurrekoa, zirriborroa eta eskema garaia
 - Zirriborro aurrekoa, zirriborroa, eskema aurrekoa eta eskema garaia
457. Adierazpen grafikoaren eskema garaian:
- Haurrak behin eta berriro eskema berberak erabiliko ditu bere marrazkietan
 - Haurrak behin eta berriro eskema ezberdinak erabiliko ditu bere marrazkietan
 - Haurrak unearen arabera erabiliko ditu eskemak bere marrazkietan
458. Adierazpen plastikoan erabiltzen diren materialei dagokienez:
- Euskarrietan ahalik eta aniztasun handiena izatea komeni da
 - Arkatzak eta boligrafoak ez dira erabili behar
 - Askok zikintzen duten materialekin kontu handia izan behar da
459. Adierazpen plastikoaren helburu nagusia da:
- Haurraren gaitasun psikomotorraren bidez, errealitatea irudikatzen hainbat bide ezagutu eta jorratzea
 - Gizartearen jakintza artistikoa transmititzea eta hainbat teknika eta aplikaziotan trebatzea
 - Haurraren sentimendu, fantasia eta pentsamenduak adierazteko bide gisa, bere ingurune materialak ezagutzea eta esperimendatzea
460. Adierazpen plastikoari dagokionez,
- Marrazketa librea hobetsi behar da
 - Emandako marrazkiak margotu behar dituzte, baina baita beren marrazkiak egin ere
 - Autore baten inguruko lanak proposa ditzakegu, horien inguruan esperimendatzea dezaten lan librearen bitartez
461. Adierazpen plastikoan garrantzitsua da
- Umeari ereduak ematea
 - Umeari hainbat modutan esperimendatzen uztea
 - Irudietatik kanpo ez marrazten ikastea
462. Ondorengo hauetatik, zerk egon behar du adierazpen plastikoaren oinarrian?
- Ondo marrazten ikastea
 - Psikomotrizitate fina
 - Sormena

463. Artea nortasunaren garapenerako baliagarria da, bai eta ...
- Adimenaren hobekuntzarako eta ezagutza orokorrerako estrategien prestakuntzarako ere
 - Haurraren abilezia garatzeko ere
 - Sen estetikoa garatzeko ere
464. Arte Hezkuntzari dagokionez, zer egin behar du hezitzaileak?
- Artea tresna pedagogiko gisa erabili, umeen lan plastikoen aurrean elkarrizketa bat eraiki (ebaluazioa barne), eta helburu plastikoak kontuan izan
 - Artearen historian jantzia egon, eta kontzeptu artistikoak ikasleei behar bezala helarazi
 - Haurrek sortzen dituzten ekoizpen plastikoak (marrazkiak, eraikinak, eskulturak...) beti baikor (oso ongi, bikain, oso polita, ederra...) eta errespetuz ebaluatu
465. Zein da erarik egokiena gelako ikonoteka sortzeko?
- Hezitzaileak arte-irudiak eramango ditu gelara, eta ikonoteka eratuko dugu, haurrekin irudiak gaika sailkatuz
 - Haurrei edozein irudi biltzeko eskatu zaie, ondoren gelara ekartzeko eta, horrela, ikonoteka abian jartzeko
 - Aurkezpenaren eta gelan egingo dugun erabileraren arabera, kontuan izango ditugu antolaketa, sailkapena, bilduma, diseinua, kokapena eta garapena
466. Gorputz-adierazpena
- Ez dugu erabiltzen normalean
 - Oso lotuta dago musika, abesti eta dantzarekin
 - Ez bata eta ez bestea
467. Zein da gorputz-adierazpena lantzeko testuingururik egokiena ?
- Mugitzeko, objektuak manipulatzeko eta ingurukoekin interakzioan aritzeko jolas-egoerek
 - Hezitzaileek horretarako bereziki kontaktzen dituzten ipuin eta kontakizunak
 - Horretarako prestatutako gelan egiten diren entrenamendu-saioak
468. Haurraren mugimenduak berarengatik ateratzen diren erantzun naturalak izatea ahalbidetu behar dugu
- Ados. Beste eremuetan bezala, esploratzeak garatzeko bide emango dio
 - Ez da komeni. Guk erakusten dieguna hobea da, beraiek ez baitute koordinaziorik
 - Hobe da guk esatea nola mugitu, bestela ez lukete jakingo
469. Gorputz-adierazpena berez da garapen tresna
- Noski, ez da beste ezer behar, adierazten utzi besterik ez
 - Ez, ez bada identifikatzen adierazten diren emozio eta pentsamenduekin
 - Aurreko biak
470. Gorputz-adierazpena
- Lotuta dago ekintzen esanahiekin
 - Lotuta dago imitazioarekin
 - Aurreko biak

471. Gorputz-adierazpenari eta espazioari dagokionez,
- Espazioa pertsonala da lehenik, gero umearen gorputza inguratzen duen espazio hurbila dugu, ondoren espazio osoa eta azkenik espazio soziala
 - Lehenik espazio pertsonala dugu, ondoren espazio soziala eta azkenik espazio osoa
 - Espazioa, Haur Hezkuntzako gainontzeko eremuetan bezala, globala da
472. Gorputz-adierazpenari dagokionez,
- Gogoan izan behar da hezitzailea bera eredu dela
 - Umeei imita dezaten, hezitzaileak errepikatu egin behar ditu ariketak
 - Aurreko biak
473. Hizkuntzaren jabekuntza eta garapena:
- Oinarri biologikoa eta herentziazkoa dauka; beraz, inolako elkarrekintza sozialik gabe ere garatzen da
 - Izaera soziala daukanez, bere jabekuntza eta garapena ez da inolaz ere faktore biologikoen arabera izango
 - Oinarri biologiko bat dauka, baina baita ikaskuntza osagarria ere. Horregatik, testuinguru sozial baten beharra dauka gara dadin
474. Hizkuntza ondorengo osagaiekin erlazionatzen da:
- Nolabaiteko zentzua eta esanahia duten hainbat soinuaren ekoizpenarekin
 - Pertsonen hizkera osatzen duten soinu artikulatu eta egituratuaren ekoizpenarekin
 - Soinuen ezagutze eta ahoskera, egitura orokor baten arabera mezu ordenatuaren eraikuntza, esanahia eta eguneroko erabilpenarekin
475. Haur-eskolan hizkuntzaren garapena:
- Ahozko hizkuntzaren aurretiko hizkuntzatik ahozko hizkuntzarako bidea egitera estimulatu eta bideratu da
 - Haur hizkuntzatik helduaren antzeko hizkuntzarako urratsa da
 - Bi aukerak egokiak dira
476. Hizkuntza aurreko etapan:
- Haurra helduek egiten dizkieten keinuen bidez eta horiek imitatuz komunikatzen da
 - Haurrak bere keinu hizkuntza dauka, oraindik ez baitu helduena ulertzen
 - Haurrak bere keinuak darabiltza komunikatzeko, baina baita sozialki finkatutako keinuak ere
477. Haurrek hitzen ahoskera menperatzen dute eta horien esanahia ulertzen, baina euren adierazpen-gaitasuna ulermen-gaitasunaren gainetik dago:
- 0 eta 12 hilabete bitartean
 - 12 hilabete eta 2 urte bitartean
 - 2 eta 3 urte bitartean
478. Haurrek hitz bakarra edo *holofrasea* erabiltzen dute ("ura"), ideia oso bat aditzera emateko ("Ura nahi dut", "ura ikusten dut"...):
- 6 eta 12 hilabete bitartean
 - 12 eta 18 hilabete bitartean
 - 18 eta 24 hilabete bitartean
479. Bi urte bete ez dituzten haurrek erabiltzen duten hizkera telegrafikoa(k):
- Bi edo hiru hitz esaldi sinpleetan konbinatzean datza
 - Ahoskera-arazoak dituztela ematen du aditzera



- c. Arau gramatikalak ez dituztela ezagutzen erakusten du
480. Bi urteko haurraren hizkerak izan ditzake:
- Etengabe errepikatzen diren gutxieneko 10 hitz
 - 100 hitz inguru, nahiz eta batzuk bakarrik erabili
 - Baita 1000 hitz ere, nahiz eta batzuetan gutxiago izan
481. Helduaren ondorengo esku-hartzeetatik zein har daiteke haur-hizkuntzaren estimulazio desegokitzat?
- Mintzagai diren objektuak izendatu eta seinalatzea
 - Haurren agerpen fonetikoak imitatzea
 - Haurren adierazpenak egokiak ez direnean, kasurik ez egitea
482. Hizkuntza-arazoei aurrea hartu ahal izateko, Haur-eskolan:
- Heldu eta haurren arteko ahozko berezko elkarrekintzaren alde egin behar da
 - Hizkuntza-programa berezien bidezko elkarrekintzaren alde egin behar da
 - Aurreko bien alde egin behar da
483. Testuinguru sozialetan komunikatu ahal izateko haur batek ikasi behar dituen alderdi hauetatik, zein da lortzen zailena?
- Galdera bati erantzuteko txanda itzarotea
 - Zuzenean egiten zaion galdera bati erantzutea
 - Ezer galdetu gabe mezu bat komunikatzea
484. Hizkuntzaren jabeakuntza- eta garapen-prozesuan sor daitezkeen asaldurek:
- Jatorri organikoa daukate
 - Izaera funtzionala daukate
 - Organikoak nahiz funtzionalak izan daitezke
485. Hizkuntzaren jabeakuntza- eta garapen-prozesuan arazorik sortzen bada:
- Beti aditu batengana joko dugu modu profesionalean esku har dezan
 - Hezitzaileak estimulazio ariketak egiteaz arduratu beharko du
 - Komenigarria da adituarekin batera lan egitea hizkuntzaren berreziketan, baina beharrezkoa da hezitzailearen esku-hartzea ere
486. Haur-eskolan, idazketaren ikaskuntzak:
- Motrizitate xehea menperatzearen arazo espezifikoa dakar, eta modu intentsiboan landu behar da
 - Haurren ekintzak bideratuko dituen ardatzetako bat izan behar du
 - Ez da etapako helburu bat; Haur-eskolako helburu da, ordea, motrizitate larritik xeherako kontrola apurka-apurka garatzea
487. Orokorrean, Haur Hezkuntzan haurra hizkuntza idatzira gerturatzeko lehen estrategia ondorengoa izango da:
- Norberaren izen idatzia, norberaren gauzetan itsatsia ezagutuko duena
 - Ikastetxean entzungo dituen ipuin eta kontakizunak
 - Ikaskideekin batera abestuko dituen abestiak
488. Hizkuntzaren garapena estimulatzeko, hezitzaileek:
- Haur hizkera erabiliko dute ("txitxi"), helduek objektuak izendatzeko erabiltzen dituzten hitzak erabili ordez ("haragia")
 - Haur gazteenekin ere hizkuntza-eredu aberatsa eta zuzena erabiliko dute
 - Haurrek egiten dituzten ahoskera- nahiz gramatika-mailako akatsak zuzenduko dituzte



489. Zein da ipuinaren funtzioa Haur-eskoletan?
- Ahozko hizkuntza lantzea, egunerokotasuneko testuingurutik at, haurren ikaskuntza bultzatuz eta estimulatuz
 - Haurrak hitzen erabilpen egokia egitera eta hizkuntzaren arauak ezagutzera bideratzea
 - Haurrei testuinguru eta egoera desberdinetan adierazten irakastea
490. Haur-eskoletako sarrera- eta irteera-uneetan:
- Ez dago denborarik inolako heziketa-arlorik lantzeko.
 - Hitz eta esamoldeen bidez (Kaixo! Agur!), hizkuntza estimulatzeko une aproposa da
 - Haurrarekin dauden helduekin luze hitz egitea hizkuntza estimulatzeko baliabidea izan daiteke
491. Haurrak jolasean edo ekintzaren bat egiten ari direnean darabilten berezko hizkuntza:
- Ariketa aproposa izan daiteke ahoskera eta entzumen ulerkorra hobetzeko
 - Baliagarria da jolasen eta ekintzen arauak errespetatzen dituzten ala ez jakiteko
 - Baliagarria da haurrei euren ahotsa zaintzen eta oihukatu gabe modu patxadatsuan hitz egin dezaten irakasteko
492. Ipuina:
- Ez da inoiz erakargarria haurrentzat. Horregatik, beste baliabide batekin uztartuko dugu (adibidez, txotxongiloekin)
 - Berez da erakargarria, nahiz eta modu anitzetan erabil daitekeen baliabidea izan
 - Ipuinarekin batera erabiltzen diren baliabideen arabera, erakargarriagoa izango da edo ez
493. Ipuinen balio hezitzailea anitza da. Ondoren aipatzen diren alderdien artean, zeinetan izan dezake funtsezko eragina? Funtsean, ondoko alderdiak egoki eragin ditzake
- Hizkuntzaren garapenean eta garapen afektibo-sozialean
 - Gustu estetikoan, kontzentrazioan eta memorian
 - Aurreko bietan aipatu diren guztietan
494. Bi urtetik beherako haurrentzako ipuinik egokienak ondorengoak lirateke:
- Errima eta bertsodun ipuinak, erritmo eta mugimenduz lagunduak
 - Denborazko sekuentzia narratibo eta eskenatoki ugari dituzten ipuinak
 - Ipuin luzeak, esaldi konplexudunak eta adierazpen landuak dituztenak
495. Bi urte inguru dituzten haurrentzako ipuinik egokienak ondorengoak lirateke:
- Amaierarik ez duten ipuinak
 - Objektu magikoak dituzten ipuinak
 - Naturaz gaindiko pertsonaiak dituzten ipuinak
496. Sara Bryant-en iritziz, bi urtetik gora, haurrek ipuinetan gehien baloratzen dituzten ezaugarriak ondorengoak dira:
- Animaliak protagonista izatea, umorea, eta eguneroko gertakari ezagunaz hornituak izatea
 - Ekintzen azkartasuna, sinpletasuna baina misterio puntu batekin, eta errepikapena
 - Motzak eta dibertigarriak izan behar dira adin horretakoentzako ipuinak



497. Ipuinak kontatzen hasi aurretik:
- Haurren jakin-mina piztea komeni da, kontatuko dugunari buruzko espektatibak sortuz
 - Haurren hizkuntzara eta adinera egokitu behar dira eta "infantilizatu" egin behar da, horretarako beharrezko esapideak prestatuz
 - Irudimena eta berezkotasuna saihestu behar dira, eta gidoiari atxiki behar gatzaizkio hasieratik amaiera arte
498. Oso txikitatik hurrek liburuekin kontaktua izango dute, beraien jostailuen parte izango dira eta oso erakargarri suertatuko zaizkie. Lehen kontaktuak maila sensorialean emango dira.
- Azken urteotako ohitura bada ere, ez da batere egokia. Hurrek ez dutelako liburua errespetatzen ikasten
 - Bai horrela da, eta gero etorriko da irudi eta koloreen gozamina
 - Heldu baten eskuetan ipuina ikusi, eta istorio zoragarriak entzutea da haur txikiek ipuinekin beharko luketen kontaktu bakarra
499. Musika-hizkuntzarekin lan egitean, hauxe indartu beharra dago:
- Haren funtzio ludikoa eta kreatiboa; horretarako, hurrek esplorazio, ekintza eta parte-hartzearen bidez egoera atseginak bizitzeko proposamenak egingo ditugu
 - Musika-tresnen ezaugarriak ezagutzea
 - Inguruko musika-joko eta abesti herrikoiak transmititzea
500. Haur-eskolan, musika-adierazpena garatzen dugu...
- Bereziki ekintzei hasiera eta amaiera emateko kanta erabiliz
 - Hurrei hotsa atera dezakeen edozein objektu, beren gorputza eta ahotsa barne, ikertzeko aukera emanez
 - Ahotsaren hezkuntza landuz
501. Musika-adierazpenaren inguruan ikerketa bultzatzeko...
- Lehentasuna izango dute hezitzaileak zuzenduriko ekintzek
 - Musika-tresnen ezaugarriak aztertuko ditugu
 - Hots- eta joko-aukera handia eskaintzen duten objektuak hautatuko dira
502. Entzumen-sentikortasuna bultzatzeko...
- Hezitzaileak abesti eta melodia laburrak hautatuko ditu, ikasterrazak eta afektiboki esanguratsuak
 - Hainbat abesti labur buruz ikastea komeni da
 - Ahotsa erabili eta landu egin beharko da
503. Musika-adierazpenaren lanketan...
- Erritmoa, intonazioa eta gorputz-adierazpenaren koordinazioa landuko da
 - Komeni da abesti sinple eta laburrak mimikaren bidez aurkeztea
 - Arlo honetan hezitzaileak prestakuntza aurreratua
504. Hizkuntza matematikoa bideratzeko...
- Testuinguru aberatsak eskaini behar ditugu, ondorengo erlazioak bultzatzeko: antolatu, taldekatu, alderatu...
 - Aritmetikari dagokionez, zenbaki txikiak erabiliko ditugu
 - Ezaugarri baten arabera sailkatuko ditugu objektuak
505. Hizkuntza matematikoa garatzeko, hezitzailearen zeregin nagusienetako bat da...
- Hurrek serieak egin ditzaten bultzatzea
 - Espazioa antolatu, objektu ugari eta anitzak eskaini, eta jarduerak proposatzea

- c. 1etik 10ra zenbakien segida buruz ikasgaraztea
506. Hizkuntza matematikoan hurrek...
- Inguruan dituzten koloreak ezagutu behar dituzte
 - Oinarritzko forma geometrikoak ezagutu behar dituzte
 - Objektuak behatu, ukitu eta alderatzeko aukera izan behar dute, bai eta beraien ezaugarriak ezagutzeko ere: kolore, soinu, material, forma...
507. Hizkuntza matematikoa garatzeko hezitzailearen zeregin nagusienetako bat da...
- Ikasleei ekiten, arazoak planteatzen eta haiei irtenbidea aurkitzen uztea
 - Ikasgelako baliabide matematikoak antolatuta edukitzea
 - Hezitzaileak zuzendutako jarduerak lehenestea
508. Proposamen interesgarria da...
- Kolore ugari eta plastikozko material komertzializatuak eskaintzea
 - Aldaketak egiteko aukera ematen duen material iraunkorra erabiltzea: tolestu, hautsi, zimurtu, neurri gisa alderatu, ontzi baten barnean dagoen hondar edo ur kopurua aldatzeko hustu edo bete...
 - Denboraren kontzeptua barneratzeko egutegia eta erlojua erabiltzea
509. Musika...
- Artea da, baina ez zientzia
 - Ahotsaren modulazioa da
 - Haurraren garapen integralarentzat ezinbesteko baliabidea da
510. Musikak...
- Entzumenaren bitartez eragiten du gure gorputzean, denbora tarteko dela
 - Ikusmenaren bidez adierazten da espazioan
 - Entzumenaren bitartez eragiten du gure gorputzean, denborak eragin gabe
511. Musikaren osagaiak dira...
- Erritmoa, melodia eta harmonia
 - Erritmoa, afinazioa eta harmonia
 - Erritmoa, melodia eta tonuak
512. Hezkuntza sentsoriala...
- Ez da komeni musika-adierazpena lantzeko
 - Musikarekin zerikusirik ez duten arloetan baliatuko da
 - Musikara hurbiltzeko modu aktibo bat da
513. Komenigarria da, hezitzaileak...
- Haurrak eskolan dauden denboran, musika jarrita edukitzea
 - Haurren bat-bateko soinuen eta erritmoen produkzioan arreta jartzea eta horiek suspertzea
 - Musika-tresnak ongi aukeratzea
514. Adierazpen matematikoaren garapena ...
- Trebatuz lortzen da
 - Ez da jolasaren bitartez lortzen
 - Haurra bere inguruneke pertsonekin eta objektuekin elkarreaginean ari dela lortzen da
515. Objektuekin eta materialekin lanean, hezitzaileak ondorengoa sustatzen du:
- Behatzea eta esperimendatzea
 - Sailkatzea eta hipotesiak egitea



- c. Aurreko bi erantzunak zuzenak dira
516. Gertakariz osaturiko sekuentzia laburretatik abiatuz...
- Haurrak denboraren nozioa eraikitzen hasten dira
 - Haurrak espazioaren nozioa eraikitzen hasten dira
 - Haurrak nozio geometrikoak eraikitzen hasten dira
517. Matematika-adierazpena lantzeko, merkatuan dauden objektuez gain...
- Jolas didaktikoak eskainiko ditugu
 - Objektu naturalak eskainiko ditugu
 - Fitxak eskainiko ditugu
518. Objektu naturalen bitartez...
- Haurrek beraien ezaugarri fisikoak antzemango dituzte eta beraiekin ekintza ugari egiteko aukera izango dute
 - Haurrek material horien arteko antzekotasun- eta desberdintasun-erlazioak ezarriko dituzte
 - Aurreko bi erantzunak zuzenak dira
519. Hezitzailearen funtzioei dagokienez,
- Egindako lanaren balorazio kritikoa egin behar dugu
 - Akatsak zuzentzea onuragarria da, betiere modu positiboan egiten badugu
 - Prozesua da baloratu behar duguna
520. Hurrengo funtzioetatik zein ez dator bat hezitzailearen lanarekin?
- Atxikimendu-irudia
 - Ebaluatzailea, proposamenak egin eta beharrak asetzen dituen
 - Ez bata eta ez bestea
521. Zein da hezitzaileak heztean duen asmoa?
- Haurraren garapen osasuntsua osotasunean bultzatzea
 - Edukiak transmititzea
 - Aurreko biak
522. Hezitzaileek taldean lan egin behar dute?
- Ez, bakoitzak nahikoa du bere taldearekin
 - Hezkuntza-proiektua partekatua da
 - Bai, lana elkarbanatu egin behar delako
523. Beharrezkoa al da hezitzailea sentikorra izatea?
- Bai, umeen atxikimendu segurua bultzatzeko
 - Aurreko erantzuna okerra da, ez du zerikusirik atxikimenduari
 - Bai, behar-beharrezkoa da
524. Hezitzaileak jai hartzen dituen...
- Ez die umei ezer esan behar
 - Umei eta gurasoei esan behar die
 - Gurasoei soilik esan behar die
525. Garrantzitsua al da erreferentziazko hezitzailea iraunkorra izatea?
- Ez da ona, umeak gaizki ohitzeko arriskua dagoelako
 - Bai, horrela hobeto egingo du bere lana
 - Bai, harreman esanguratsuak eraikitzeke denbora behar delako
526. Hezitzaileek zergatik izan behar dituzte hartu-emanak familiekin?
- Haurraren inguruko informazioa jasotzeagatik
 - Haurraren heziketan zuzenean eskuartzen dutelako



- c. Aurreko biengatik
527. Umeen gurasoekin harreman onak izatea garrantzitsua da...
- Gurasoak umeentzako garrantzitsuena direlako
 - Ez da ona, gurasoek gaizki har dezaketelako
 - Ez da hezitzaileen funtzioen barruan sartzen
528. Nork baldintzatzen du haurraren heziketa?
- Gurasoek
 - Gurasoek eta hezitzaileek
 - Gurasoek, hezitzaileek, sukaldeko langileek...
529. Umeen eta hezitzaileen arteko harremanek...
- Umeek gurasoekin duten harremana ordezkatzeko dute
 - Ezin dute ordezkatu umeek beren gurasoekin dutena
 - Aurreko biak zuzenak dira
530. Umeek harreman intimoak behar dituzte.
- Ez da horrela; taldean badu bere beharrak asetzea
 - Ahal bada ondo, baina bestela ez da ezer gertatzen
 - Bai, beharrezkoak ditu osasuntsuki garatzeko
531. Ume guztiek tratua eta arreta bera jaso behar dute?
- Ez, bakoitza ezberdina da
 - Bai, ahal bada
 - Bai, guztiei gauza bera eman behar zaie
532. Ume bat gaixo egon bada:
- Hezitzaileak berriro integratzen lagundu behar dio
 - Galdu duena berreskuratu beharko luke
 - Halakorik berriro ez gertatzen saiatu beharko da
533. Gelako giroan eragin nabarmena dute...
- Hezitzailearen jarrerek
 - Hezitzailearen jokabideek
 - Aurreko biek